*Etxebizitzen* batez besteko antzinatasunari *erreparatuz gero, ikuspegi geografikoari jarraituz gorabehera handiko tarteak aurkituko ditugu. Zentzu horretan, Bizkaian aurkituko dugu alokairuan jarritako etxebizitzen parke zaharrena, batez besteko antzinatasuna 42 urtekoa delarik; Arabak du, ordea, parkerik gazteena (21 urte), eta tartean geratzen da Gipuzkoa (38 urte), EAEko batez bestekoaren inguruan hain zuzen. Alokairuan jarritako etxebizitzen parkea zaharragoa da hiriburuetatik kanpoko gainerako zonetan (35 eta 41 urte, hurrenez hurren) euskal hiriburuetan baino.*

Por *Territorios Históricos* la superficie media de las viviendas de alquiler es prácticamente igual (78 $m^2$ Bizkaia, 76 $m^2$ Gipuzkoa y Álava), sin embargo las capitales presentan menores superficies: 74 $m^2$ en las mismas frente a 80 $m^2$ del resto de ámbitos geográficos.

Ahora bien, atendiendo a la distribución de frecuencias, las viviendas de alquiler de menor tamaño (inferior a 75 $m^2$) predominan en Gipuzkoa (50%) y en las capitales (52%) por encima del promedio de la CAPV (44%) y del resto de territorios (33% en Álava y 43% en Bizkaia). Y las viviendas más grandes (más de 90 $m^2$) que agrupan al 20% de los hogares de alquiler de la CAPV, tienen un mayor peso relativo en Bizkaia (25%) y fuera de las capitales (22% y el 18% en las capitales).

En cuanto a la *antigüedad media*, el intervalo de oscilación desde el punto de vista geográfico es bastante amplio. En este sentido, Bizkaia sigue presentando el parque de viviendas en alquiler más antiguo, con 42 años de promedio y Álava el más joven (21 años), situándose Gipuzkoa (38 años) en el promedio de la CAPV. En las tres capitales vascas el parque de alquiler es menos antiguo que en el resto de zonas (35 años y 41 años, respectivamente).

*2.5. Koadroa ALOKATZEKO ETXEBIZITZEN EGOITZA-EZAUGARRIAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA*
Cuadro 2.5. CARACTERÍSTICAS RESIDENCIALES DE LAS VIVIENDAS EN ALQUILER POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

| *EZAUGARRIAK* CARACTERÍSTICAS | *EAE* CAPV | *ARABA* ÁLAVA | *BIZKAIA* | *GIPUZKOA* | *Hiriburuak* Capitales | *Gainerakoa* Resto |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***GUZTIRA* / TOTAL** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *ETXEBIZITZAREN AZALERA ERABILGARRIA (m²)* SUPERFICIE ÚTIL VIVIENDA (m²) | | | | | | |
| *< 40* | 1,1 | 4,1 | 0,0 | 1,3 | 2,1 | 0,0 |
| *< 41 - 60* | 20,9 | 15,3 | 26,4 | 16,8 | 25,4 | 16,0 |
| *< 61 - 75* | 22,2 | 13,8 | 16,6 | 31,4 | 24,4 | 19,8 |
| *< 76 - 90* | 24,8 | 39,9 | 20,9 | 23,6 | 22,3 | 27,4 |
| *< 91 - 120* | 14,4 | 4,1 | 16,7 | 15,6 | 12,1 | 16,9 |
| *> 120* | 5,6 | 5,7 | 8,3 | 2,7 | 6,1 | 5,1 |
| *Ed/Ee* Ns/Nc | 11,0 | 17,1 | 11,0 | 8,6 | 7,5 | 14,8 |
| ***Batez besteko azalera guztira (m²)* / Superficie media (m²)** | **77,0** | **75,9** | **78,1** | **76,1** | **74,4** | **80,0** |
| *ETXEBIZITZA ERAIKUNTZAREN URTEAK* N.º AÑOS CONSTRUCCIÓN VIVIENDA | | | | | | |
| *> 60* | 25,1 | 8,7 | 27,1 | 28,8 | 22,1 | 28,4 |
| *59-40* | 13,0 | 0,0 | 18,3 | 11,7 | 14,0 | 11,9 |
| *39-25* | 22,1 | 12,3 | 25,4 | 22,0 | 21,4 | 22,8 |
| *24-15* | 6,0 | 12,3 | 3,1 | 7,1 | 4,5 | 7,8 |
| *14-5* | 10,4 | 16,3 | 7,1 | 11,9 | 12,6 | 8,0 |
| *< 5* | 7,3 | 18,8 | 4,4 | 6,4 | 11,6 | 2,7 |
| *Ed/Ee* / Ns/Nc | 16,1 | 31,6 | 14,7 | 12,0 | 13,9 | 18,5 |
| ***Batez besteko antzinatasuna (urteak)* Antigüedad media (años)** | **37,9** | **21,3** | **41,9** | **38,4** | **35,3** | **41,0** |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

## *2.2. Alokairuan bizi diren familien ezaugarri sozioekonomikoak*

*Euskal familien ezaugarri sozio ekonomikoei erreparatuz gero baieztatuko dugu edukitza-erregimenaren arabera egoera desberdinak ageri direla. Oro har, alokairuan bizi diren familien kide-kopurua jabe diren familiena baino baxuagoa izan ohi da (aurreko txostenetan esandakoaren ildotik); familiaburua zertxobait gazteagoa da eta lan-egoera ezegonkorragoa du; gainera, jabe diren familiak baino denbora gutxiago darama gaur egun duen etxebizitzan bizitzen.*

*Hasteko,* familiaren batez besteko tamaina *aztertuko dugu. Ikus daitekeenez, familiaren tamaina murrizteko joera nagusi den testuinguru batean, 1997-2002 aldian etxebizitza alokatu batean bizi diren familiak 2,8 kidekoak dira eta etxebizitzaren jabe diren familiak, berriz, 3,1 kidekoak.*

## 2.2. Características socioeconómicas de los hogares en alquiler

Los rasgos socioeconómicos de los hogares vascos presentan algunas diferencias en función del régimen de tenencia de la vivienda ocupada. En general, se puede decir, tal y como se ha visto en informes anteriores, que las familias inquilinas son de menor tamaño que las propietarias, la persona principal es algo más joven, se caracteriza por una situación laboral más inestable y lleva residiendo en la vivienda actual desde hace menos tiempo.

En primer lugar, haciendo referencia al *tamaño medio familiar,* se observa que, dentro de una tendencia general a la reducción en el mismo, en todo el periodo 1997-2002 los hogares que residen en una vivienda alquilada presentan un tamaño inferior de 2,8 miembros por unidad familiar, frente a los 3,1 de promedio de las familias propietarias.





*2.6. Koadroa EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK. JABETZA vs. ALOKAIRUA*
Cuadro 2.6. CARACTERÍSTICAS SOCIOECONÓMICAS: PROPIEDAD vs. ALQUILER

| | *EDUKITZA-ERREGIMENA* / RÉGIMEN TENENCIA | | |
|---|---|---|---|
| ***EZAUGARRIAK*** | ***Jabetza*** **Propiedad** | ***Alokairua*** **Alquiler** | **CARACTERÍSTICAS** |
| ***GUZTIRA*** | **100,0** | **100,0** | **TOTAL** |
| *FAMILIAKO KIDEAK* | | | N.º MIEMBROS DEL HOGAR |
| *Pertsona 1* | 8,1 | 16,5 | 1 persona |
| *2 pertsona* | 23,3 | 29,2 | 2 personas |
| *3 pertsona* | 29,2 | 23,8 | 3 personas |
| *4 pertsona* | 29,1 | 21,5 | 4 personas |
| *5 pertsona* | 7,5 | 5,9 | 5 personas |
| *6 pertsona edo gehiago* | 2,8 | 3,2 | 6 ó más personas |
| *Batez besteko kopurua* | 3,1 | 2,8 | N.º medio |
| *FAMILIABURUAREN ADINA* | | | EDAD PERSONA PRINCIPAL |
| *24 urte arte* | 0,2 | 1,2 | Hasta 24 años |
| *25-34 urte bitartean* | 8,3 | 18,8 | De 25 a 34 años |
| *35-44 urte bitartean* | 23,9 | 22,8 | De 35 a 44 años |
| *45-54 urte bitartean* | 26,6 | 19,1 | De 45 a 54 años |
| *55-64 urte bitartean* | 20,8 | 23,2 | De 55 a 64 años |
| *65 urte edo gehiago* | 20,1 | 14,8 | De 65 y más años |
| *Batez besteko adina (urteak)* | 51,5 | 48,4 | Edad media (años) |
| *FAMILIABURUAREN LAN-EGOERA* | | | SITUACIÓN LABORAL PERSONA PRINCIPAL |
| *Lanean/bere kontura* | 14,3 | 13,5 | Ocupado/a cuenta propia |
| *Lanean/kontratu finkoa* | 42,6 | 28,9 | Ocupado/a contrato fijo |
| *Lanean/aldi baterako* | 6,2 | 12,9 | Ocupado/a contrato temporal |
| *Langabetua* | 4,0 | 10,9 | Parado/a |
| *Etxeko lanak* | 2,5 | 3,5 | Labores del hogar |
| *Erretiratua* | 25,2 | 21,0 | Jubilado/a |
| *Ikaslea* | 0,2 | 0,0 | Estudiante |
| *Beste hainbat* | 4,8 | 9,3 | Otra |
| *ETXEBIZITZAN BIZITZEN URTE-KOPURUA* | | | N.º AÑOS RESIDENCIA VIVIENDA |
| *1 edo 2 urte* | 2,8 | 10,6 | 1 año o menos |
| *1-2 urte bitartean* | 3,9 | 13,0 | De 1 a 2 años |
| *2-4 urte bitartean* | 6,8 | 17,8 | De 2 a 4 años |
| *5-9 urte bitartean* | 12,8 | 17,0 | De 5 a 9 años |
| *10 urte edo gehiago* | 73,7 | 41,6 | De 10 y más años |
| *Batez beste (urteak)* | 8,7 | 6,4 | Residencia media (años) |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).



*Alokairuan bizi diren familien artean pertsona bakarrak osatutako familia-unitateak nabarmentzen dira, guztien artetik %17 direlarik (%8 jabe direnen artean), bai eta bi pertsonek osatutakoak ere (%29 alokairuan bizi diren familien artean eta %23 jabe direnen artean. Etxebizitzaren jabe diren familien artean, aitzitik, 3-4 kideko familiek lortu dute proportzio altuena (%58 kasu honetan eta %45 alokairuri dagokionez).*

En los hogares de alquiler destaca una mayor proporción de unidades familiares unipersonales, las cuales representan el 17% (el 8% en propiedad) y aquellas que están compuestas por dos personas (29% en el colectivo de alquiler y 23% en el de propiedad). En cambio en las familias con vivienda en propiedad son más representativas aquellas que están compuestas por 3 ó 4 miembros (58% en este caso y 45% en alquiler).

*2.5. Grafikoa* *Familiaren batez besteko tamainaren bilakaera*
Gráfico 2.5. Evolución del tamaño medio familiar




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Alokairuan bizi diren* familien buruaren batez besteko adina *48 urtekoa da eta jabe direnena, berriz, 52 urtekoa. Aipatu datuak aurreko urteetako datuekin alderatuz gero baieztatzen denez, alokairuan bizi diren familien burua jabe diren familiena baino zertxobait gazteagoa da. Haatik, lehen aipatu denaren ildotik, ezin dugu esan alokairuan bizi diren familien buruaren batez besteko adina murrizteko joera argia dagoenik.*

La *persona principal* de los hogares de alquiler presenta una *edad media* de 48 años, frente a los 52 años de las familias propietarias. La comparativa de estos resultados con los años precedentes muestra que la persona principal de los hogares de alquiler sigue siendo algo más joven que la de las familias propietarias. No obstante, no llega a confirmarse la tendencia a la reducción en la edad media de las personas principales de familias en alquiler que se apuntaba con anterioridad.

*Familiaburuaren adin-tarteei erreparatuz gero, honako desberdintasun hauek aurkituko ditugu: alokairuan bizi diren familien artean gehiago dira 35 urtetik beherako familiaburu gazteak (%20, %8,5en parean), eta jabe diren familien artean, ostera, gehiago dira 64 urtetik gorako familiaburuak (%20, alokairuan bizi direnen %15en parean). Bi taldeak bere osotasunean hartuta esango dugu 35-54 urte bitarteko tartean aurkituko dugula familiaburu gehien; guztira jabe diren familien erdia (%51) eta alokairuan bizi direnen %42 sar daiteke tarte horretan.*

Los intervalos de edad de la persona principal muestran esta diferencia: en las familias de alquiler existe una mayor proporción de personas principales jóvenes de menos de 35 años (el 20% frente al 8,5%) y en los hogares con vivienda en propiedad es mayor el volumen de personas principales con más de 64 años (20% en este caso y 15% en alquiler). El grueso de las personas principales en ambos colectivos se sitúa entre 35 y 54 años, representando la mitad de las familias propietarias (51%) y el 42% de las de alquiler.

Familiaburuaren lan-egoerari *dagokionez, etxebizitzaren jabe diren familien buruen artetik %63 lanean ari da; ehuneko baxuagoa lortu da alokairuan bizi diren familien artean (%55). Horrez gain, alokairuan bizi diren familien laneko ezegonkortasuna larriagoa da, hau da, horietatik %13k aldi baterako kontratu bat du eta %11, berriz, langabezian dago. Jabe diren familien kasuan lortutako portzentajeak baxuagoak dira (%6 aldi baterako kontratuarekin eta %4 langabezian).*

En cuanto a la *situación laboral de la persona principal,* el 63% de las familias propietarias están ocupadas, algo menos en el caso de las que viven de alquiler (55%). Además, la inestabilidad laboral es más patente en las familias inquilinas, concretamente el 13% posee un contrato temporal y un 11% se encuentra en situación de desempleo, porcentajes muy inferiores en el caso de los hogares propietarios (6% con contrato temporal y 4% en desempleo).

*2.6. Grafikoa Familiaburuaren batez besteko adinaren bilakaera*
Gráfico 2.6. Evolución de la edad media de la persona principal




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

Oraingo etxebizitzan bizitzen igarotako urte-kopuruari *erreparatuz gero ikus daitekeen moduan, alokairuan bizi diren familiek jabe diren familiek baino urte gutxiago daramate oraingo etxebizitzan: 6,4 urte lehenengoen kasuan eta 8,7 urte bigarrenen kasuan. Alokairuan bizi diren familien %41ek 5 urte baino gutxiago daramatza oraingo etxebizitzan (%13,5 jabeen kasuan) eta etxebizitzaren jabe diren familien %74k, berriz, 10 urte edo gehiago (%42 dira alokairuan bizi diren familien kasuan).*

Alokairuan bizi diren euskal familien ezaugarri sozioekonomikoak desberdinak dira Lurralde Historikoen eta Hiriburuen arabera. *Familiaburuaren batez besteko adinari dagokionez, Arabakoak dira gazteenak (45 urte) eta Bizkaikoak zaharrenak (50 urte). Hiriburuen arabera, familiaburuaren batez besteko adina baxuagoa da Hiriburuetan (47 urte) Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerrietan baino.*

*Oraingo etxebizitzan bizitzen igarotako batez besteko urteei dagokienez, Araban lortutako emaitza gainerako Lurralde Historikoetan lortutakoa baino baxuagoa da; horrela, alokairuan bizi diren familiei dagokienez 4 urtekoa da batez bestekoa; 6 urtekoa da Gipuzkoan eta 7 urtekoa, azkenik, Bizkaian. Hiriburuetan 6 urte dira batez bestekoa. Alokairuan bizi diren familien kide-kopurua nahiko antzekoa da Lurralde Historikoak eta Hiriburuak kontuan hartzen baditugu, hain zuzen, Arabako 2,6 kide eta Bizkaiko 2,9 kideko batez bestekoen artekoa.*

En cuanto al *número de años de residencia en la vivienda actual*, se observa que por término medio el colectivo de alquiler lleva residiendo menos tiempo que el de propiedad, 6,4 años el primero y 8,7 años el segundo. El 41% de las familias de alquiler ha ocupado la vivienda hace menos de 5 años (el 13,5% de las propietarias) y el 74% de las familias con vivienda en su propiedad lleva residiendo desde hace 10 años o más, frente al 42% de las inquilinas.

El *perfil socioeconómico de los hogares vascos en régimen de alquiler por Territorios Históricos* y de las *Capitales* muestra algunas ligeras diferencias. En relación a la media de edad de la persona principal, Álava es la que presenta la edad más joven (45 años) y Bizkaia la de más edad (50 años). La edad media de la persona principal de las capitales (47 años) es también menor que en el resto de la Comunidad Autónoma.

El promedio de años resididos en la vivienda actual es bastante inferior en Álava que en el resto, presentando un promedio de 4 años por hogar de alquiler, frente a los 6 años de Gipuzkoa y los 7 años de Bizkaia. Las capitales presentan 6 años de media. Y el número de personas por unidad familiar de los hogares de alquiler no presenta diferencias importantes entre los Territorios Históricos y las Capitales, situándose en un intervalo que oscila de 2,6 personas en Álava a 2,9 en Bizkaia.



*2.7. Grafikoa* *Jabe diren familien eta alokairuan bizi diren familien arteko desberdintasun sozioekonomiko nagusiak*
Gráfico 2.7. Principales diferencias socioeconómicas entre hogares propietarios y hogares en alquiler




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*2.7. Koadroa* *ALOKAIRUAN BIZI DIREN FAMILIEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK, LURRALDE HISTORIKOEN ETA HIRIBURUEN ARABERA*
Cuadro 2.7. CARACTERÍSTICAS SOCIOECONÓMICAS DE LOS HOGARES EN ALQUILER POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPITALES

| ***EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK*** **CARACTERÍSTICAS SOCIOECONÓMICAS** | ***EAE*** **CAPV** | ***ARABA*** **ÁLAVA** | ***BIZKAIA*** | ***GIPUZKOA*** | ***Hiriburuak*** **Capitales** | ***Gainerakoa*** **Resto** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Batez besteko adina (urteak)* / Edad media (años) | 48,4 | 44,7 | 50,0 | 47,9 | 46,6 | 50,3 |
| *Batez besteko kide-kop.* / N.º medio miembros | 2,8 | 2,6 | 2,9 | 2,8 | 2,9 | 2,7 |
| *Batez besteko egonaldia (urteak)* Residencia media (años) | 6,4 | 3,9 | 7,3 | 6,3 | 5,7 | 7,1 |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).





## *2.3. Finantza-ahalmena eta ordaindutako errentak*

Alokairuan bizi diren familiek *aitortu dutenez, familiaren hileko sarrera garbiak 1.157 euro dira, hain zuzen, jabe diren familienak baino %10 gutxiago (1.292 euro). Alokairuan bizi diren familiek agertutako maila ekonomiko baxuagoa familia horiek dituzten sarrera baxuagoekin lotuta dago. Gauza nabarmena da aipatutakoa hilean 630 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten familien kasuan; hain zuzen, alokairuan bizi diren familien %20k aipatu sarrerak dituen bitartean, jabe diren familien kasuan %9,6 besterik ez dira.*

*Aurreko urteetako datuekin alderatuta esan daiteke, alokairuan bizi diren familien sarrerak etxebizitzaren jabe direnenak baino baxuagoak direla; gainera, 1997-2002 aldian izandako hazkundea ere desberdina izan da bi kasuetan:*

— *Alde batetik, etxebizitzaren jabe diren familien sarreren eta alokairuan bizi diren familien sarreren arteko aldea areagotu egin da, aztertutako aldiko batez bestekoa gaindituz. Hain zuzen, 1997. urtetik 2002. urtera jabe diren familien sarreren desberdintasuna %8 izan da batez beste, eta 2002an %10 da.*

— *Horren arrazoia honakoa da: etxebizitzaren jabe diren familien sarrerek %41eko gorakada izan dute 1997tik; %32koa izan da, ordea, alokairuan bizi diren familien sarrerek ezagututakoa. Azken urteko datuek islatzen dutenez, etxebizitzaren jabe diren familien sarrerek gorakada handiagoa ezagutu dute (%6koa, eta alokairuan bizi diren familien kasuan %2koa).*

*Hileko sarrera garbiak*[3] familiaren sarrera gordin haztatu bihurtzean, *honakoa da lortutako emaitza: alokairuan bizi diren familien %41en sarrerak urteko 15.000 euro baino baxuagoak dira (sustapen publikoko etxebizitza sozialen segmentua); altuagoa da etxebizitzaren jabe diren familien artean lortutako ehunekoa (%30). Haatik, bi motatako etxebizitza gehienen kasuan (%80-%82) etxebizitza babestua erosteko sarrera-mailak (33.000 euro arte) aurkituko ditugu, hots, 2001eko Inkestan lortutako emaitzak baino baxuagoak.*

*[3] Gogoan hartu behar da, inkestan ez zela eskatzen hilean jasotako sarrera garbien kopuru zehatza, baizik eta inkestan zehaztutako sarrera-tarte desberdinetatik zegokiona aukeratzea. Era berean, galdera honi erantzun gabekoen ehunekoa nahiko altua da.*

## 2.3. Capacidad financiera y rentas pagadas

Los hogares que han declarado residir en una vivienda alquilada declaran disponer de unos *ingresos familiares netos mensuales* cifrados, en promedio, en 1.157 euros, que resultan un 10% inferiores a los de los hogares con vivienda en propiedad (1.292 euros). Este menor nivel económico de las familias con viviendas de alquiler tiene su reflejo en un claro predominio de estos hogares en tramos inferiores de ingresos. Este fenómeno es particularmente evidente en el caso de las familias con ingresos por debajo de los 630 euros al mes; en efecto, mientras que el 20% de los hogares de alquiler declaran disponer de dichos ingresos, este porcentaje se reduce a un 9,6% de las familias propietarias.

Comparativamente con los resultados obtenidos años anteriores, estos datos confirman la menor disposición de ingresos declarada por los hogares que residen en una vivienda alquilada frente a los propietarios y reflejan un incremento a lo largo del periodo 1997-2002 que también ha sido desigual:

— Por un lado, se detecta una mayor distancia entre los ingresos familiares de los hogares propietarios y de los inquilinos en el último año, presentando una desigualdad por encima de la media del periodo analizado. Concretamente si desde 1997 hasta el presente año la diferencia entre los ingresos de los hogares en propiedad ha sido de un 8% de media, en 2002 es del 10%.

— Ello es fruto de que los hogares con vivienda en propiedad han visto incrementados sus ingresos en un 41% desde 1997, frente al 32% de incremento de los ingresos de las familias arrendatarias. Los datos del último año también reflejan este mayor aumento de ingresos de las familias propietarias (6% frente al 2% de las familias inquilinas).

De la conversión aproximada de los ingresos netos mensuales[3] en *ingresos brutos familiares ponderados*, se obtiene que por debajo de 15.000 euros anuales (segmento de vivienda social de promoción pública) se situarían en torno a un 41% de los hogares de alquiler, proporción que es superior a la de las familias propietarias (30%). No obstante, la inmensa mayoría de ambos tipos de hogares (80%-82%) se sitúan en los niveles de ingresos para el acceso a la vivienda protegida (hasta 33.000 euros), resultados que suponen niveles inferiores a los de la Encuesta de 2001.

[3] Recuérdese que no se requería de la persona encuestada la cuantía exacta de ingresos mensuales netos percibidos sino que identificara entre los distintos tramos de ingresos especificados en el cuestionario el que le correspondía. Asimismo, el porcentaje de no respuesta a esta pregunta es relativamente alto.

*2.8. Koadroa FAMILIAREN SARRERAK EDUKITZA-ERREGIMENAREN ARABERA*
Cuadro 2.8. INGRESOS FAMILIARES SEGÚN RÉGIMEN DE TENENCIA

| | *EDUKITZA-ERREGIMEN* / RÉGIMEN TENENCIA | | |
|---|---|---|---|
| | *Jabetza* Propiedad | *Alokairua* Alquiler | |
| ***GUZTIRA*** | **100,0** | **100,0** | **TOTAL** |
| *FAMILIAREN HILEKO SARRERA GARBIAK* | | | INGRESOS NETOS MENSUALES FAMILIARES |
| *390 euro arte* | 2,8 | 7,9 | Hasta 390 euros |
| *391-480 euro bitartean* | 2,8 | 7,3 | De 391 a 480 euros |
| *481-570 euro bitartean* | 1,4 | 1,4 | De 481 a 570 euros |
| *571-630 euro bitartean* | 2,6 | 3,5 | De 571 a 630 euros |
| *631-720 euro bitartean* | 3,8 | 0,5 | De 631 a 720 euros |
| *721-840 euro bitartean* | 3,8 | 4,9 | De 721 a 840 euros |
| *841-990 euro bitartean* | 6,9 | 8,7 | De 841 a 990 euros |
| *991-1.140 euro bitartean* | 7,6 | 6,7 | De 991 a 1.140 euros |
| *1.141-1.290 euro bitartean* | 8,1 | 6,9 | De 1.141 a 1.290 euros |
| *1.291-1.410 euro bitartean* | 6,7 | 5,5 | De 1.291 a 1.410 euros |
| *1.411-1.650 euro bitartean* | 8,4 | 6,0 | De 1.411 a 1.650 euros |
| *1.651-2.160 euro bitartean* | 9,2 | 8,8 | De 1.651 a 2.160 euros |
| *2.160 euro baino gehiago* | 10,2 | 8,5 | Más de 2.160 euros |
| *Ed/Ee* | 25,5 | 23,5 | Ns/Nc |
| *FAMILIAREN BATEZ BESTEKO SARRERA GARBIAK* | | | INGRESOS NETOS MEDIOS FAMILIARES |
| *1997* | 919,5 | 877,4 | 1997 |
| *1999* | 1.030,2 | 928,8 | 1999 |
| *2001* | 1.217,4 | 1.132,3 | 2001 |
| *2002* | 1.292,3 | 1.157,0 | 2002 |
| *ALDIKO HAZKUNDEA (%) Δ* | | | INCREMENTO PERIODO (%) Δ |
| *1997-1999* | 12,0 | 5,8 | 1997-1999 |
| *1999-2001* | 18,2 | 21,9 | 1999-2001 |
| *2001-2002* | 6,2 | 2,2 | 2001-2002 |
| *Bosturteko hazkundea (1997-2002)* | 40,5 | 31,9 | Incremento quinquenio (1997-2002) |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Hortaz, alokairuan bizi diren familien taldean eta etxebizitzaren jabe direnen taldean 33.000 eurotik gorako sarrerak dituzten familiak ugaritu egin dira eta, ondorioz, 15.000 eurotik beherako sarrera dituztenak gutxiagotu. Etxebizitza babestu bat erosteko sarrera-tartean (33.000 euro baino gutxiago) izandako beherakadak eragin handiagoa izan du alokairuan bizi diren familien artean. Horrela, 2001ean %90 iristen zen sarrera-tarte horretara eta 2002an, berriz, %80; hau da, segmentu babesgarrian %11ko uzkurdura egon dela esan daiteke.*

Por lo tanto, tanto en los hogares inquilinos como en los propietarios se observan aumentos en la proporción de hogares con ingresos por encima de los 33.000 euros y consecuentemente una reducción de los de ingresos por debajo de 15.000 euros. La disminución en el tramo de ingresos para acceder a vivienda protegida (menos de 33.000 euros) ha sido más acusada en las familias inquilinas, concretamente en 2001 prácticamente un 90% podía, mientras que en el 2002 un 80%, lo que supone un descenso del 11% del segmento protegible.

*2.8. Grafikoa Batez besteko sarrera garbien bilakaera*
Gráfico 2.8. Evolución de los ingresos netos medios




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Alokairuan bizi diren familiek aitortu dutenez, hilean ordaindu beharreko errenta 314,5 euroko izan da 2002. urtean. Bilakaerari erreparatuz gero, errentak urtean hazkunde handia izan duela ikusiko dugu, sarrerek izandakoa baino altuagoa. Horrela, 1997-2002 aldian hileko batez besteko sarrera garbiek %32ko gorakada izan badute (urtean +%6), hileko batez besteko errentak izandako gorakada %64koa izan da (urtean +%10). Azken urtean hileko batez besteko errentak %14ko gorakada izan du; alokairuan bizi diren familien batez besteko sarrera garbiek, aitzitik %2 bakarrik egin dute gora.*

Centrando la atención en la cuantía de la renta mensual que declaran hacer frente los hogares en alquiler, ésta asciende en 2002 a 314,5 euros. En términos evolutivos, se observa un sustancial incremento anual de dicha renta, con aumentos superiores a los experimentados por los ingresos de estos mismos hogares. Así, en el periodo 1997-2002 si bien los ingresos netos mensuales medios se han incrementado un 32% (equivalente a un +6% anual), la subida de la renta mensual promedio ha sido de un 64% (+10% anual). En el último año, la renta mensual media se ha visto afectada por una subida cercana al 14%, mientras los ingresos netos medios de los hogares de alquiler sólo aumentaban un 2%.

*2.9. Grafikoa Familiaren sarrera haztatuak: jabetza vs. alokairua*
Gráfico 2.9. Ingresos familiares ponderados: propiedad vs. alquiler




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*2.9. Koadroa ALOKAIRUAN BIZI DIREN FAMILIEK HILEAN ORDAINDU BEHARREKO ERRENTAREN BILAKAERA*
Cuadro 2.9. EVOLUCIÓN DE LA RENTA MENSUAL PAGADA POR LOS HOGARES EN ALQUILER

| | *EDUKITZE-ERREGIMENA ALOKAIRUA* RÉGIMEN TENENCIA ALQUILER | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | *1997* | *1999* | *2001* | *2002* | |
| ***GUZTIRA*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **TOTAL** |
| *ALOKAIRUAREN HILEKO ERRENTA* | | | | | RENTA MENSUAL ALQUILER |
| *60 euro baino gutxiago* | 33,8 | 31,7 | 15,3 | 13,2 | Hasta 60 euros |
| *61etik 120ra bitartean* | 17,9 | 12,8 | 9,0 | 14,0 | De 61 a 120 euros |
| *121etik 180ra bitartean* | 8,6 | 13,3 | 10,9 | 8,7 | De 121 a 180 euros |
| *181etik 240ra bitartean* | 7,3 | 6,7 | 8,2 | 3,0 | De 181 a 240 euros |
| *241 a 300era bitartean* | 7,3 | 10,6 | 12,8 | 8,9 | De 241 a 300 euros |
| *301 a 450era bitartean* | 21,2 | 16,7 | 23,4 | 17,1 | De 301 a 450 euros |
| *451 a 600era bitartean* | 2,6 | 5,6 | 15,0 | 19,3 | De 451 a 600 euros |
| *601 a 750era bitartean* | 1,3 | 1,6 | 0,6 | 6,4 | De 601 a 750 euros |
| *751 a 900era bitartean* | 0,0 | 1,0 | 0,2 | 1,6 | De 751 a 900 euros |
| *901 a 1.200era bitartean* | 0,0 | 0,0 | 0,6 | 0,5 | De 901 a 1.200 euros |
| *Ed/Ee* | 0,0 | 0,0 | 4,0 | 7,3 | Ns/Nc |
| ***Batez besteko errenta (euro)*** | **192,3** | **205,8** | **276,6** | **314,5** | **Renta media (euros)** |
| ***URTE ARTEKO HAZKUNDEA (%) Δ*** | | **7,0** | **34,4** | **13,7** | **INCREMENTO RENTA PERÍODO (%) Δ** |
| ***ALDIKO HAZKUNDEA GUZTIRA (%) Δ*** | | | | **63,6** | **TOTAL INCREMENTO PERÍODO (%) Δ** |
| ***FINANTZA-AHALEGINAREN %**** | **21,9** | **22,2** | **24,4** | **27,2** | **ESFUERZO FINANCIERO %*** |

* *Alokairuak sarreren guztizkotik hartzen duen ehunekoa*/Porcentaje que representa el alquiler sobre el total de ingresos.
*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*2.10. Grafikoa Alokairuan bizi diren familiek alokairuagatik hilean ordaindutako batez besteko errentaren bilakaera*
Gráfico 2.10. Evolución de la renta media de arrendamiento pagada por los hogares en alquiler




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).



*Ordaindu beharreko hileko errenten maiztasun-tarteen banaketaren arabera, errenta altuenetarako desplazamendua gertatzen ari dela ikusiko dugu, errenta zaharrak desagertzen ari direla agerian jarriz, eta alokairuagatik hilean 600 euro baino gehiago ordaintzen dituzten familiak ugaritu direla baieztatu dugu.*

*Aurreko urteetako emaitzak ikusita, 1997. urtean alokairuan bizi ziren familien %52k hilean 120 euro baino gutxiago ordaintzen zituen errenta bezala, eta 2002an, ordea, %27 besterik ez dira kopuru hori ordaintzen dutenak. Alokairuan bizi diren familien artetik %48k 300 eurotik beherako errenta ordaintzen du hilean (%75 1997an). 300-600 euroko tarteko errenta aitortu duten familiak %36 dira eta %8,5ek aitortu duenez, 600 eurotik gorako errenta ordaintzen dute hilean.*

La distribución de frecuencias de las rentas mensuales pagadas muestra que se está produciendo un desplazamiento hacia los niveles de rentas mayores, lo que evidencia la importante desaparición de las rentas antiguas y el aumento de los hogares que declaran pagar más de 600 euros mensuales en concepto de renta de alquiler.

Si se tienen en cuenta los resultados de años anteriores se observa que el porcentaje de hogares que pagan una renta inferior a 120 euros, que representaban el 52% de los hogares de alquiler de 1997, en el 2002 corresponde sólo al 27% de los mismos. Un 48% de las familias de alquiler paga una renta no superior a 300 euros (el 75% en 1997). Los hogares que afirman poseer una renta situada en el intervalo de 300 y 600 euros es de un 36% y un 8,5% declara pagar más de 600 euros.

*2.11. Grafikoa Alokairuaren batez besteko errentari dagozkion maiztasunen banaketaren bilakaera*
Gráfico 2.11. Evolución de la distribución de frecuencias acumuladas de la renta media de alquiler




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Berriro ere ordaindutako batez besteko errentak aztertuko ditugu. Batez besteko errenta desberdinak aurkituko ditugu etxebizitzarekin lotutako hainbat alderdiren arabera, hala nola, etxebizitzaren antzinatasuna eta alokatu den urtea.*

*Horrela, etxebizitzaren antzinatasuna kontuan hartuta, zenbat eta zaharragoa izan etxebizitza orduan eta baxuagoa da errenta, orokorrean. Bost urte baino gutxiagoko etxebizitzen kasuan hilean ordaindu beharreko batez besteko errenta 431 eurokoa da, eta 60 urtetik gorakoetan, berriz, 229 eurokoa. Hori ikusita ziurtatu daiteke oraindik errenta zaharrak dituzten alokairu asko eta asko dagoela eta, arrazoizkoa den moduan, etxebizitza zaharrengatik ordaindu beharreko errentak dira.*

*Zentzu berean, duela gutxi egindako alokairuen kasuan ordaintzen da errentarik altuena. Oraingo etxebizitzan urtebete edo gutxiago daramaten familiek 476 euro ordaintzen dituzte hilean batez beste; 10 urte edo gehiago daramaten familiek, berriz, 140 euro baino gutxiago ordaintzen dutela aitortu dute.*

Incidiendo en el aspecto de las rentas medias pagadas, se observa que este concepto varía sustancialmente en función de algunos aspectos relacionados con la vivienda ocupada, tales como la antigüedad de la vivienda y el año de contratación del alquiler.

Así, en función de la antigüedad de la vivienda decir que en general cuanto más antigua es la vivienda menor es la renta pagada. Las viviendas de menos de 5 años suponen una renta media de 431 euros al mes y las de más de 60 años 229 euros. Esta diferencia sigue mostrando en buena medida el elevado número de contratos de alquiler con rentas congeladas aún vigentes, que como es lógico corresponden principalmente a viviendas viejas.

En el mismo sentido, cuanto más reciente es el año de contratación del alquiler mayor es la renta a pagar. Mientras los hogares que llevan residiendo desde hace un año o menos pagan 476 euros de media, aquellos que llevan 10 años o más afirman pagar menos de 140 euros.



*2.10. Koadroa ORDAINDUTAKO ERRENTAK, ETXEBIZITZEN EZAUGARRIEN ARABERA*
Cuadro 2.10. RENTA PAGADA SEGÚN CARACTERÍSTICAS DE LAS VIVIENDAS OCUPADAS

| | *BATEZ BESTEKO ERRENTA* / RENTA MEDIA | |
|---|---|---|
| *ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK* | *Euro*/Euros | CARACTERÍSTICAS DE LAS VIVIENDAS |
| *60 urte baino gehiago* | 228,6 | Más de 60 años |
| *40 - 59 urte bitartean* | 223,0 | Entre 40 y 59 años |
| *25 - 39 urte bitartean* | 339,3 | Entre 25 y 39 años |
| *24 - 15 urte bitartean* | 484,5 | Entre 24 y 15 años |
| *14 - 5 urte bitartean* | 351,2 | Entre 14 y 5 años |
| *5 urtetik behera* | 431,4 | Menos de 5 años |
| *KONTRATAZIO-URTEA* | | AÑO DE CONTRATACIÓN |
| *Urtebete edo gutxiago* | 475,7 | 1 año o menos |
| *1 edo 2 urte* | 455,0 | De 1 a 2 años |
| *2-4 urte bitartean* | 438,8 | De 2 a 4 años |
| *5-9 urte bitartean* | 393,6 | De 5 a 9 años |
| *10 urte baino gehiago* | 139,8 | Más de 10 años |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*2.12. Grafikoa Hileko errenta etxebizitzaren antzinatasuna eta kontratazio-urtearen arabera*
Gráfico 2.12. Renta mensual según antigüedad de la vivienda y año de contratación







*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).





Alokairu berriei[4] *dagokienez, eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Txosteneko datuak kontuan hartuta, 2002an eskainitako* alokairu librearen hileko batez besteko errentak *lortutako hiruhileko batez besteko mailak 690 euro eta 203 euro izan ziren* alokatzeko etxebizitza babestuaren *kasuan.*

*Hala ere, Lurralde Historikoen araberako azterketa bat eginez, aldaketa-tarte handia ikus daiteke, bai alokatzeko etxebizitza libreen merkatuan bai alokatzeko etxebizitza babestuen kasuan. Araba da alokatzeko etxebizitza libreen errenta altuenak dituen lurraldea (760 euro hilean); ondoren Gipuzkoa dago (715 euro), eta Bizkaia da azkena (655 euro). Etxebizitza babestuaren kasuan, 2002an Gipuzkoak izan zituen errentarik altuenak, batez beste 318 euroko errentak lortu zirelarik; Araban 214 eurokoa izan zen batez bestekoa eta Bizkaian 136 eurokoa.*

*Inkesta horretan azaldutako* Esparru geografikoen araberako emaitzetan *ere aurkituko ditugu desberdintasunak. Araban daude familien*

En lo referente a los *nuevos alquileres*, y según los datos extraídos del Informe de Oferta Inmobiliaria publicado por el Gobierno Vasco[4], la *renta mensual media de alquiler libre* ofertada a lo largo de 2002 presentó unos niveles trimestrales promedio de 690 euros y 203 euros en el caso de la *vivienda protegida de alquiler.*

Ahora bien, el intervalo de oscilación de dicha variable por Territorios Histórico es muy amplio tanto en el caso de las viviendas de alquiler del mercado libre como del protegido. Álava es la que presenta las rentas medias más altas de la vivienda libre (760 euros mensuales), seguido por Gipuzkoa (715 euros) y Bizkaia (655 euros). En el caso de vivienda protegida, en el 2002, fue Gipuzkoa la que presentaban las rentas más altas, alcanzando los 318 euros de promedio, frente a los 214 euros de Álava o los 136 euros de renta de Bizkaia.

Los *resultados por ámbito geográfico* de la presente Encuesta también reflejan desigualdades. Álava presenta los ingresos fami-

*2.11. Koadroa ALOKATZEKO ESKAINITAKO ETXEBIZITZEN ERRENTA (LIBREAK ETA BABESTUAK) EAE-N**
Cuadro 2.11. RENTA DE LAS VIVIENDAS OFERTADAS EN ALQUILER (LIBRES Y PROTEGIDAS) EN LA CAPV*

| *Batez besteko errenta* / Renta media | *Etxebizitza librea* / Vivienda libre | *Etxebizitza babestua* / Vivienda protegida |
|---|---|---|
| 1994 | 583,0 | -- |
| 1995 | 534,9 | -- |
| 1996 | 528,9 | -- |
| 1997 | 528,9 | -- |
| 1998 | 528,9 | 144,0 |
| 1999 | 565,0 | 154,5 |
| 2000 | 593,8 | 184,5 |
| 2001 | 625,0 | 187,3 |
| 2002 | | |
| *Araba* / Álava | 760,4 | 213,5 |
| Bizkaia | 654,6 | 135,9 |
| Gipuzkoa | 714,9 | 317,8 |
| ***EAE* / CAPV** | **689,8** | **202,9** |
| ***Aldiko hazkundea* / Incremento periodo (%) Δ** | **18,3** | **40,9** |

**Taulan adierazitako errentak, urte bakoitzeko hiruhileko errenten batez bestekoak kalkulatuz lortu dira*/Las rentas son promedios de las rentas trimestrales de cada año.
*Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2002. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.*
Fuente: Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria, 2002. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

[4] *Kontuan hartu, agian aipatu batezbestekoak erabat zehatzak ez direla (altuagoak dira), izan ere, partikularren artean egindako eskaintza ez da kontuan hartu, baizik eta sustatzaileek eta Higiezinen Jabetzako Ajenteek egindakoa bakarrik hartu da kontuan; gainera, HJAen kasuan hiriburuak eta hiri handiak dira azterketaren xede eta etxebizitzagatik bertan lortutako prezioak eta errentak altuagoak dira.*

[4] Ha de tenerse en cuenta que estas cifras promedio podrían estar algo sesgadas al alza debido a que la mencionada operación estadística no capta la oferta directa entre particulares, sino sólo la de promotores y Agentes de la Propiedad Inmobiliaria y que estos últimos están más representados en capitales y grandes ciudades, donde los niveles de precios y rentas de la vivienda son más elevados.

*2.13. Grafikoa EAEn eskainitako etxebizitzen (libreak eta babestuak) errentaren bilakaera*
Gráfico 2.13. Evolución de renta de las viviendas ofertadas (libres y protegidas) en alquiler en la CAPV

*ALOKATZEKO ETXEBIZITZA LIBREAK*
VIVIENDA LIBRE EN ALQUILER




*ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUAK*
VIVIENDA PROTEGIDA EN ALQUILER




*Iturria: Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2002. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.*
Fuente: Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria, 2002. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

*batez besteko sarrera (1.370 euro) eta etxebizitzak alokatzeko errenta (409 euro) altuenak. Bizkaian, aitzitik, baxuenak (1.079 euroko sarrerak eta 278 alokatzeko errenta). Horrez gain, Hiriburuetan alokairuan bizi diren familiek aitortutakoaren arabera, beren batez besteko sarrerak hiriburuetatik kanpo bizi diren familienak baino %23 altuagoak dira (1.271 euro eta 1.035 euro, hurrenez hurren); bestalde, Hiriburuetako etxebizitzak alokatzeko ordaindu beharreko errentak gainerako udalerrietakoak baino %57 altuagoak dira: 380 eurokoa da, batez beste, euskal hiriburuetako errenta eta 242 eurokoa, berriz, gainerako udalerrietakoa.*

liares medios (1.370 euros) y las rentas de alquiler (409 euros) más elevadas y Bizkaia en cambio los menores ingresos (1.079 euros) y la renta de alquiler (278) más baja. Además, los hogares de alquiler residentes en las capitales afirman recibir unos ingresos, en promedio, 23% mayores que las familias que viven fuera del ámbito capitalino (1.271 euros y 1.035 euros, respectivamente), además las rentas de alquiler medias de las capitales son un 57% superiores a las del resto: 380 euros en las capitales vascas de promedio y 242 euros en el resto.

*2.12. Koadroa ALOKAIRUAN BIZI DIREN FAMILIEN FINANTZA-AHALMENA LURRALDE HISTORIKOEN ETA HIRIBURUEN ARABERA*
Cuadro 2.12. CAPACIDAD FINANCIERA DE LOS HOGARES EN ALQUILER POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPITALES

*Batez bestekoa (eurotan)* / Media (euros)

| | *EAE* CAPV | *ARABA* ÁLAVA | *BIZKAIA* | *GIPUZKOA* | *Hiriburuak* Capitales | *Gainerakoa* Resto |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Familiaren hileko sarrera garbiak* Ingresos netos mensuales familiares | 1.157,0 | 1.369,8 | 1.079,4 | 1.141,7 | 1.271,3 | 1.034,9 |
| *Alokairuaren hileko errenta* Renta mensual alquiler | 314,5 | 408,7 | 278,4 | 321,8 | 380,1 | 241,5 |
| *FINANTZA-AHALMENAREN %* ESFUERZO FINANCIERO % | 27,2 | 29,8 | 25,8 | 28,2 | 29,9 | 23,3 |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Familia batek bizi den etxebizitza alokatzeagatik hilean ordaindu behar duen batez besteko errenta eta hileko sarrerak kalkulatuz lortuko dugu alokairua ordaintzeko egin beharreko finantza-ahalmena zehaztea; horrela, honakoak dira lortutako emaitzak: alokairuan bizi diren familien sarreren %27 etxebizitzaren errenta ordaintzera bideratzen da. 1997tik hasitako joera eten eta gainditu egin du finantza-ahalmenaren tasa horrek, eta gero eta nabarmenagoa da familien sarreren eta alokairuagatik ordaindu beharreko errentaren artean desoreka handia dagoela.*

*Egin beharreko finantza-ahalmena aldatu egiten da bizitzeko aukeratu den esparru geografikoaren arabera. Horrenbestez, Araban alokairuan bizi diren familien kasuan, soldataren %30 errenta ordaintzeko erabiltzen da; Gipuzkoan %28 eta Bizkaian %26. Hiriburuetan egin beharreko finantza-ahaleginak gainontzeko udalerrietan egin beharrekoa gainditzen du neurri handi batean, hots, %30 lehenengoan eta %23 bigarrenean.*

*Alokairuan bizi diren familiek eta azken bi urteetan etxebizitza erosi duten familien finantza-ahaleginak alderatuta ikus daiteke, erosi den etxebizitza ordaintzeko 474 euro inguru bideratzen direla (EAEko alokairuaren batez besteko errenta baino zertxobait altuagoa) eta horrek %30eko finantza-ahalegina eskatzen du, hain zuzen, alokairuan bizi den familiek egin beharrekoaren antzekoa (%27).*

A partir de la relación directa entre la renta media mensual que el hogar ha declarado pagar por el alquiler de la vivienda en la que reside y el volumen de ingresos mensuales, se obtiene una estimación del *esfuerzo financiero que conlleva el alquiler,* con los siguientes resultados: un 27% del salario neto de los hogares de alquiler se destina al pago de la renta de la vivienda ocupada. Esta tasa de esfuerzo se mantienen por encima de las que se venían observando desde 1997, lo que refleja la cada vez mayor descompensación entre salario percibido y renta de alquiler pagada.

Este esfuerzo financiero también varía en función de la zona geográfica de residencia. Concretamente, los hogares de alquiler de Álava destinan al pago de la renta un 30% de su salario, el 28% en el caso de Gipuzkoa y el 26% en Bizkaia. El esfuerzo financiero de las capitales es muy superior al resto, el 30% en el primer caso y el 23% en el segundo.

En la comparativa entre el esfuerzo financiero de los hogares inquilinos y los hogares que han adquirido una vivienda en los últimos 2 años, se observa que los importes que deben destinar al pago de la vivienda comprada alcanzan un promedio aproximado de 474 euros, (cantidad algo mayor a la renta media de alquiler en la CAPV), lo que supone un esfuerzo financiero del 30%, no muy superior al realizado por el colectivo de alquiler (27%).

*2.14. Grafikoa Finantza-ahaleginaren bilakaera EAEn, Lurralde Historikoetan eta Hiriburuetan*
Gráfico 2.14. Evolución del esfuerzo financiero en la CAPV, en los Territorios Históricos y en las Capitales




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

## *2.4. Alokairua aukeratzeko arrazoiak eta asetasuna*

*Etxebizitza erosteko beharrik ez dutela eta alokairuan bizi direla aitortu duten euskal familiei erreparatuz gero, alokairua aukeratzeko* arrazoi nagusia *etxebizitza bat erosteko dirurik ez edukitzea edo sarrera finkorik ez edukitzea izan da (galdetutakoen %52). %18k esan duenez, etxebizitzaren baldintzak eta errenta aukera ona ziren eta %14k aldi baterako izatea espero du, etxebizitza bat erosi bitartean egindako aukera bezala ulertzen baitu alokairua.*

## 2.4. Motivo y satisfacción con el régimen de alquiler

Centrando la atención en los hogares vascos que declaran no tener necesidad de vivienda y que viven de alquiler, el *principal motivo* alegado para residir en dicho régimen sigue siendo la falta de ingresos suficientes o estables para comprar una vivienda (52% de los casos). El 18% afirma que las condiciones y la renta de la vivienda eran una oportunidad y el 14% se lo plantea como una solución temporal hasta poder comprar.

*2.15. Grafikoa Beharrik ez duten familiek alokairu-erregimena aukeratzeko izandako arrazoiak (%)*
Gráfico 2.15. Motivos del régimen de alquiler de los hogares sin necesidad (%)




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*Talde honek alokairuaren aurrean azaldutako* batez besteko asetasun-maila *57 puntukoa da 0-100 eskalan. Zehazkiago esateko: galdetutakoen %56 oso asetuta edo nahiko asetuta agertu da alokairuarekin; %44k asetasun-maila baxua adierazi du eta beharrik ez eduki eta alokairuan bizi diren familien %15 ez dago bat ere asetuta.*

*Etxebizitzaren beharrik ez eduki eta alokairuaren aurrean asetasun txikia azaldu duen taldea kontuan hartuta eta, horrekin batera, beharra duten eta alokairuan bizi diren familiek osatutako taldea kontuan hartuta, zera esan daiteke: etxebizitza aldatzeko beharra eduki eta alokairuan bizi diren familien erdiak, gutxi gorabehera, asetasunik eza adierazi dute, eta arrazoi nagusia beren jabetzako etxebizitza bat edukitzeko gogoa izan da, etxebizitzen baldintzak gainditzuz.*

*Amaitzeko, datozen lau urteetan EAEn* etxebizitza bat erosteko aukerari *buruz galdetu denean, beharrik ez duten eta alokairuan bizi diren familien %48k adierazi duenez, litekeena da epe horretan*

Este colectivo presenta un *grado de satisfacción medio con el régimen de alquiler* de 57 puntos sobre 100. Concretamente un 56% de los mismos declara estar muy o bastante satisfechos con el alquiler y el 44% restante se manifiestan como poco o nada satisfechos, siendo el núcleo duro de fuerte insatisfacción el 15% de las familias de alquiler sin necesidad de vivienda declarada.

Este grupo de hogares sin necesidad de vivienda que se definen como poco satisfechos con el régimen de alquiler, unido a que una parte importante de los hogares de alquiler con necesidad de cambio alegan como motivo principal el deseo de propiedad, conlleva a pensar que aproximadamente la mitad de los hogares de alquiler muestran una insatisfacción con este régimen de tenencia, motivada no tanto por las condiciones de la vivienda ocupada, sino más bien por el deseo de una vivienda en propiedad.

Finalmente, en cuanto a la *posibilidad de comprar una vivienda* en la CAPV en los próximos cuatro años, el 48% de los hogares de alquiler que no presentan necesidad de vivienda declara que es muy o

*etxebizitza erostea, duela urtebete lortutako portzentajea baino zertxobait baxuagoa (%53). Horrela, etxebizitza erosteko aukeraren batez bestekoa 46 puntukoa da, 0-100 eskala batean, hain zuzen, 2001ean baino 6 puntu gutxiago.*

bastante probable que adquieran una vivienda en propiedad, porcentaje algo inferior al de hace un año (53%). De esta manera, la posibilidad de compra media se sitúa en la actualidad en 46 puntos sobre 100, 6 puntos porcentuales por debajo de la de 2001.

*2.13. Koadroa ETXEBIZITZA EROSTEKO BEHARRIK EZ DUTEN FAMILIEK ALOKAIRUAREN ERREGIMENA AUKERATZEKO ARRAZOIAK ETA ASETASUN-MAILA*

Cuadro 2.13. MOTIVOS Y SATISFACCIÓN CON EL RÉGIMEN DE ALQUILER DE LOS HOGARES SIN NECESIDAD DE VIVIENDA

| | ***EDUKITZE-ERREGIMENA*** **RÉGIMEN TENENCIA** | |
|---|---|---|
| ***ARRAZOIAK ETA ASETASUN-MAILA*** | ***Alokairua*** **Alquiler** | **MOTIVOS Y GRADO DE SATISFACCIÓN** |
| ***GUZTIRA*** | **100,0** | **TOTAL** |
| *ALOKAIRUA AUKERATZEKO ARRAZOI NAGUSIA* | | PRINCIPAL MOTIVO DE OPTAR POR EL ALQUILER |
| *Sarrerarik ez* | 52,3 | Falta de ingresos |
| *Ez du hipotekarik nahi* | 1,8 | No quiere hipotecarse |
| *Mugikortasuna* | 3,2 | Movilidad |
| *Aldi baterako konponbidea* | 13,6 | Solución temporal |
| *Aukera* | 18,2 | Oportunidad |
| *Beste hainbat arrazoi* | 10,9 | Otros motivos |
| *ALOKAIRUAREKIN ASETUTA AL ZAUDE?* | | ¿ESTÁ SATISFECHO CON VIVIR EN ALQUILER? |
| *Asko* | 30,5 | Mucho |
| *Nahiko* | 25,3 | Bastante |
| *Gutxi* | 29,5 | Poco |
| *Bat ere ez* | 14,8 | Nada |
| ***Batez besteko asetasuna*** | **56,9** | **Satisfacción media** |
| *EAEN ETXEBIZITZA EROSTEKO AUKERA* | | POSIBILIDAD DE COMPRAR UNA VIVIENDA EN LA CAPV |
| *Aukera asko* | 24,7 | Muy probable |
| *Nahiko* | 23,5 | Bastante probable |
| *Aukera gutxi* | 14,8 | Poco probable |
| *Ia ezinezkoa* | 34,4 | Nada probable |
| *Ed/Ee* | 2,5 | Ns/Nc |
| ***Batez besteko erosketa-ahalmena*** | **46,3** | **Posibilidad de compra medio** |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

# 2. *ALOKATUTAKO ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK*
# 2. CARACTERIZACIÓN DE LAS VIVIENDAS Y HOGARES EN ALQUILER



## *ALOKAIRUAN ESKAINTZEN DIREN ETXEBIZITZEN ETA ALOKAIRUAN BIZI DIREN FAMILIEN EZAUGARRIEN LABURPENA*
## SÍNTESIS DE LA CARACTERIZACIÓN DE LAS VIVIENDAS Y HOGARES EN ALQUILER

### *ALOKATZEKO ETXEBIZITZA-PARKEA: ALOKAIRUAREN INDIZEAK*
### DIMENSIÓN DEL PARQUE DE ALQUILER: ÍNDICES DE ALQUILER

| *EAE* / CAPV | *Araba* / Álava | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|
| 5,1% | 5,4% | 5,8% | 4,7% |

- *Indizeek zertxobait behera egin dute* / Tendencia ligeramente descendiente de los índices.
- *Nafarroa eta Errioxa bezalako Autonomia Erkidegoetako indizea baino altuagoa* / Índice superior a CC AA colindantes como Navarra o la Rioja.
- *Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa (%10,5) eta Europako baino baxuagoa (%31,3)* / *Índice inferior a la media estatal (10,5%) y europea (31,1%).*

| ***LAGATZEAREN EZAUGARRIAK*** **CARACTERÍSTICAS DE LA CESIÓN** | • *Merkatuko prezioaren arabera kalkulatuko den aldiroko kanon edo errentaz gain, titularrak etxebizitza birgaitzeko laguntza lortu dezake ordainean, gehienez 18.000 € etxebizitza bakoitzagatik.*<br>• Además del canon o renta periódica calculado en función del precio de mercado, en contraprestación, el titular podrá obtener la reforma de la vivienda para hacer posible su habitabilidad con un coste máximo de 18.000 € por vivienda.<br>• *VISESAk eskainiko ditu alokatzeko etxebizitzak xede horrekin Etxebideren erregistroan izena emandako pertsona fisikoen edo familia-unitateen artean.*<br>• Las viviendas serán ofrecidas en arrendamiento por VISESA a las personas físicas o unidades convivenciales inscritas a tal efecto en el registro Etxebide. |

| ***ESTATUKO ETXEBIZITZA-PLANA*** / **PLAN DE VIVIENDA ESTATAL** | |
|---|---|
| ***SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZEI LAGANTZEA ONDOREN ALOKAIRUAN ESKAINTZEKO*** **COFINANCIACIÓN DE VIVIENDAS DE PROMOCIÓN PÚBLICA CON DESTINO AL ARRENDAMIENTO** | |
| ***BALDINTZAK*** **CONDICIONES** | • *Hartzaileen gehienezko sarrerak: ≤ 2,5 LAGS.*<br>• Ingresos máximos destinatarios: ≤ 2,5 SMI.<br>• *Etxebizitzen gehienezko azalera: 70 edo 90 $m^2$ familia-unitateak 4 kide edo gehiago baditu.*<br>• Superficie máxima de las viviendas: 70 ó 90 $m^2$ si la unidad familiar consta de 4 o más miembros.<br>• *Gutxienez 10 urtez alokairuan bizitzea.*<br>• Permanencia en régimen de alquiler durante un mínimo de 10 años. |
| ***KOFINANTZAKETA*** **COFINANCIACIÓN** | • *Kofinantzaketaren gehienezko kopurua: sustapenaren kostuaren %30.*<br>• Cuantía máxima de la cofinanciación: 30% del coste de promoción.<br>• *Kostu konputagarria (azalera erabilgarriko $m^2$ bakoitzagatik): nazio-mailan oinarrizko prezioaren %85.*<br>• Coste computable (por $m^2$ de superficie útil): 85% del precio básico a nivel nacional. |

*Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Bertan landua.*
Fuente: Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

### *c) Alokairu babestuaren gehienezko salmenta-prezioak eta errentak: EAE vs. Estatua*

*Jarraian, etxebizitza-plan bakoitzean aipatzen diren etxebizitza babestuaren gehienezko salmenta-prezioak aztertuko ditugu lehenik eta behin; horietatik lortuko dira alokairu babestuaren errentak eta horiek kalkulatzeko erabili beharreko ehunekoak.*

*Horrez gain,* alokairu babestuaren hileko errentak *alderatzeko, jarraian ageri den taula landu da, adibide moduan erabiltzeko. Hau da,* 90 $m^2$-ko etxebizitza baterako, eraitxikirik gabe, *dagokion araudiaren arabera aplikatutako gehienezko prezioen oinarritik lortutako errentak kalkulatu dira.*

*Aipatutako taula ulertzeko kontuan hartu behar da, Estatu-mailan etxebizitzaren gehienezko prezio jakin bat ezartzen bada ere, Autonomia Erkidegoek %25 areagotu ahal dute prezio hori etxebizitza alokatzeko eskaintzen badute eta, horrez gain, udalerri bakoitzaren ezaugarrien arabera izan daitekeen gorakada ere kontuan hartu behar da. EAEri dagokionez, sustapen-motaren arabera prezio desberdinak aurkituko ditugu (erregimen berezia eta erregimen orokorra); prezioan eragina duten beste hainbat alderdi honakoak dira: sustapena kokatzen den esparru geografikoa (hiriburua, berariazko udalerriak eta beste hainbat udalerri).*

### c) Precios máximos de venta y rentas de alquiler protegido: CAPV vs. Estado

A continuación se exponen en primer lugar los precios máximos de venta de vivienda protegida recogidos en cada plan de vivienda, de los que se derivan las rentas de alquiler protegido y los porcentajes a utilizar para el cálculo de las mismas.

Además, en un intento de comparar las *rentas mensuales de alquiler* protegido derivadas, se ha calculado en el cuadro siguiente, a modo de ejemplo, las rentas resultantes sobre la base de los precios máximos de venta aplicados en cada normativa para una *vivienda protegida de 90 $m^2$ sin anejos.*

Para la comprensión del cuadro hay que tener en cuenta, que a nivel estatal se establece un precio básico de vivienda, del que las Comunidades Autónomas pueden incrementar en el caso del alquiler un máximo de un 25%, más el posible aumento derivado de ser un municipio singular. En el caso de la CAPV, el precio varía según tipo de promoción (régimen especial y régimen general) y otros aspectos como el área geográfica de la promoción (capital, municipios específicos y otros municipios).





*5.6. Koadroa GEHIENEZKO SALMENTA-PREZIOAK ETA URTEKO GEHIENEZKO ERRENTAREN KALKULUA: EAE vs. ESTATUA*
Cuadro 5.6. PRECIOS MÁXIMOS DE VENTA Y CÁLCULO DE LA RENTA MÁXIMA ANUAL: CAPV vs. ESTADO

| | | ***EAEko 2002-2005 ETXEBIZITZA-PLAM ZUZENDARIA*** **PLAN DIRECTOR DE VIVIENDA CAPV 2002-2005** | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ***Gehienezko salmenta-prezioak (euro m²)*** **Precios máximos de venta (euros m²)** | | ***Urteko gehienezko errenta**** **Renta máxima anual*** | | | |
| | | ***Sarrerak* / Ingresos** | ***Etxebizitza soziala*[8]/ Vivienda social[8]** | | **BOE / VPO** |
| ***Erregimen orokorreko BOE* / PO Régimen general** | | **Euro** | ***Publikoa* / Pública (%)** | ***Pribatua* / Privada (%)** | **(%)** |
| *Hiriburuak* / Capitales | 1.145 € | < 3.000 € | 2 | 2 | — |
| *Berariazko udalerriak* / Municipios específicos | 1.082 € | (3.001 € -9.000 €) | 2,5 | 2,5 | — |
| *Gainerako udalerriak* / Resto municipios | 955 € | (9.001 € - 15.100 €) | 3 | 3 | 2 |
| *Etxebizitza soziala* / Vivienda social | | (15.101 € - 21.100 €) | — | 5 | 4 |
| *Sustapen publikoa* / Promoción pública | 526 € | (21.101 € - 27.100 €) | — | — | 5 |
| *Sustapen pribatua* / Promoción privada | 700 € | (27.101 € - 33.100 €) | — | — | 6 |

| | | ***ESTATUKO 2002-2005 ETXEBIZITZA-PLANA*** **PLAN DE VIVIENDA ESTATAL 2002-2005** | |
|---|---|---|---|
| ***Gehienezko salmenta-prezioak (euro m²)*** **Precios máximos de venta (euros m²)** | | ***Urteko gehienezko errenta**** **Renta máxima anual*** | |
| *Oinarrizko prezioa* / Precio básico | 636 € | *Mailegu kualifikatuaren amortizazio-epea* Plazo de amortización del préstamo cualificado | *Salmenta-prezioaren portzentajea (%)* Porcentaje del precio de venta (%) |
| *Erregimen berezia*** / Régimen especial** | 716 € | | |
| *Alokairua (AE*1,25)* / Alquiler (CC AA*1,25) | 795 € | *25 urte* / 25 años | 4 |
| *Udalerriak* / Municipios | | | |
| - *A Taldea* / Grupo A | 1.113 € | *10 urte* / 10 años | 7 |
| - *B Taldea* / Grupo B | 954 € | | |
| - *C Taldea* / Grupo C | 875 € | | |

* *Errenta kalkulatzeko, etxebizitzaren eta eraitxikien salmentaren balioaren gainean aplikatu behar dira portzentajeak hauek*/Porcentajes a aplicar sobre el valor imputable en venta de la vivienda y anejos para el cálculo de la renta.
** *Autonomia Erkidegoetan erabilitako irudia*/Figura aplicada por las CC AA.
*Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Bertan landua.*
Fuente: Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

*Zentzu horretan, zehaztutako oinarrizko prezioen arabera egindako kalkuluak kontuan hartuta, Estatuko Etxebizitza Planean barne hartutako 90 m² eta eraitxikirik gabeko etxebizitza-ereduagatik ordaindu beharreko* gutxieneko *errenta* 190,9 euro hilean *izango litzateke, 25 urterako alokairu babestuan eskainiz, eta* gehienezko *errenta* 459,3 euro hilean *izango litzateke, C taldeko udalerri berezi batean kokatuta badago; gainera, Autonomia Erkidegoak egin dezakeen gehienezko gorakada aplikatu da eta, ondorioz, etxebizitza babestuaren sailkapena izango du 10 urtez.*

En este sentido, según los cálculos realizados en base a los precios básicos estipulados, la renta de alquiler de una vivienda modelo de 90 m² sin anejos derivada del Plan de Vivienda Estatal se situaría entre el *mínimo* de *190,9 euros mensuales* con una vinculación al alquiler protegido durante 25 años, al *máximo* de *459,3 euros* mensuales si está localizada en un municipio singular del grupo C y se le ha aplicado el máximo incremento posible por la Comunidad Autónoma, quedando sujeta a la calificación de vivienda protegida durante 10 años.

[8] *Ehunekoek gora egiten dute etxebizitza sozialaren onuradunak baldintzen azterketan baimendutako gehienezko sarrerak gainditzen baditu; honakoak kontuan hartu beharreko kopuruak: %5 21.100 euro bitarteko sarrerekin, %10 27.100 euro bitarteko sarrerekin eta %12 33.100 euro bitarteko sarrerekin.*

[8] Los porcentajes se incrementan si la persona beneficiaria de vivienda social excede los ingresos máximos permitidos en la revisión de las condiciones, siendo el 5% con ingresos hasta 21.100 euros, el 10% hasta 27.100 euros y 12% hasta 33.100 euros.



*EAEko Etxebizitza Plan Zuzendarian, eraitxikirik ez duen 90 $m^2$-ko etxebizitzak eta 15 urtez alokairu babestuaren erregimenarekin lotuta daudenak (10 urte birgaitze-lanak egin badira ondoren etxebizitza alokatzeko), hileko* 78,9 euroko *errenta dute* sustapen publikoko etxebizitza sozialak *badira, hain zuzen, 15.100 eurotik beherako urteko sarrerak; eta* 515,3 euro *ordaintzen dira hilean* babes ofizialeko etxebizitza *batengatik, hau da, urteko gehienezko sarrerak 33.100 eurokoak dituzten familia-unitateak.*

En el Plan Director de Vivienda de la CAPV, una vivienda también de 90 $m^2$ sin anejos con vinculación al régimen de alquiler protegido durante 15 años (10 años en caso de rehabilitación para arrendamiento) la renta mensual oscilaría entre los *78,9 euros* de una *vivienda social de promoción pública* para unos ingresos anuales inferiores a 15.100 euros, hasta los *515,3 euros* mensuales de una *vivienda de protección oficial* para una unidad familiar con ingresos máximos de 33.100 euros anuales.

*5.7. Koadroa ETXEBIZITZA BABESTUAREN HILEKO ERRENTEN ADIBIDEAK*
Cuadro 5.7. EJEMPLOS DE RENTAS MENSUALES DE VIVIENDA PROTEGIDA

<table>
<tr><td></td><td colspan="6">ALOKAIRU BABESTUAREN HILEKO ERRENTA: 90 m²-KO ETXEBIZITZA ERAITXIKIRIK GABE<br>RENTA MENSUAL DE ALQUILER PROTEGIDO: VIVIENDA 90 m² SIN ANEJOS</td></tr>
<tr><td></td><td colspan="6">EAE / CAPV</td></tr>
<tr><td>Erregimen orokorreko BOE<br>VPO régimen general</td><td colspan="2">Hiriburuak<br>Capitales</td><td colspan="2">Berariazko udalerriak<br>Municipios específicos</td><td colspan="2">Gainerako udalerriak<br>Resto municipios</td></tr>
<tr><td>< 15.100 €</td><td colspan="2">171,8</td><td colspan="2">162,3</td><td colspan="2">143,3</td></tr>
<tr><td>(15.100 €-21.100 €)</td><td colspan="2">343,5</td><td colspan="2">324,6</td><td colspan="2">286,5</td></tr>
<tr><td>(21.100 €-27.100 €)</td><td colspan="2">429,4</td><td colspan="2">405,8</td><td colspan="2">358,1</td></tr>
<tr><td>(27.100 €-33.100 €)</td><td colspan="2">515,3</td><td colspan="2">486,9</td><td colspan="2">429,8</td></tr>
<tr><td>Erregimen bereziko BE<br>VP régimen especial</td><td colspan="3">Sustapen publikoa<br>Promoción pública</td><td colspan="3">Sustapen pribatua<br>Promoción privada</td></tr>
<tr><td>< 15.100 €</td><td colspan="3">78,9</td><td colspan="3">105</td></tr>
<tr><td>(15.100 €-21.100 €)</td><td colspan="3">98,6</td><td colspan="3">131,3</td></tr>
<tr><td>(21.100 €-27.100 €)</td><td colspan="3">118,4</td><td colspan="3">157,5</td></tr>
<tr><td>(27.100 €-33.100 €)</td><td colspan="3">—</td><td colspan="3">262,5</td></tr>
<tr><td></td><td colspan="6">ESTATUA / ESTADO</td></tr>
<tr><td></td><td colspan="6">Mailegu kualifikatuaren amortizazio-epea<br>Plazo de amortización de préstamo cualificado</td></tr>
<tr><td></td><td colspan="3">25 urte / 25 años</td><td colspan="3">10 urte / 10 años</td></tr>
<tr><td>Oinarrizko prezioaren kalkulatutako errenta</td><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Erregimen bereziko BOE errenta</td><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Renta calculada con precio básico</td><td colspan="3">190,9</td><td colspan="3">334,0</td></tr>
<tr><td>Renta VPO régimen especial</td><td colspan="3">214,7</td><td colspan="3">375,8</td></tr>
<tr><td>O. errenta + AEko gehienezko gorakada</td><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>R. básica + Incremento máximo CC AA</td><td colspan="3">238,6</td><td colspan="3">417,5</td></tr>
<tr><td>- A taldeko udalerri berezia / Municipio singular Grupo A</td><td colspan="3">334,0</td><td colspan="3">584,6</td></tr>
<tr><td>- B taldeko udalerri berezia / Municipio singular Grupo B</td><td colspan="3">286,3</td><td colspan="3">501,0</td></tr>
<tr><td>- C taldeko udalerri berezia / Municipio singular Grupo C</td><td colspan="3">262,5</td><td colspan="3">459,3</td></tr>
</table>

*Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Bertan landua.*
Fuente: Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco. Elaboración propia.





### *Alokatzeko etxebizitzen eskaintzak beherakada txikia izan du EAEn*

*EAEko alokatzeko etxebizitzen parkea eta Estatukoa txikiak dira Europako gainerako herrialdeekin alderatuz gero; gainera, badirudi alokairuan bizi diren familiak zertxobait gutxitzen ari direla guztiarekiko. Inkesta honen arabera, 2002an euskal familien %5,1 bizi zen alokairuan; Estatuan %10,5 ziren eta Europan, azkenik, %31.*

### Descenso moderado del índice de vivienda de alquiler en la CAPV

El parque de viviendas de alquiler en la CAPV y en el conjunto del Estado sigue siendo reducido en comparación con el resto de países europeos y además el número de hogares que viven en alquiler parece continuar experimentando un descenso moderado de su participación en el total. Según la presente encuesta, el 5,1% de los hogares vascos en 2002 residía en una vivienda alquilada, porcentaje del 10,5% en el conjunto del Estado y del 31% a nivel europeo.

*6.1. Grafikoa Alokatzeko etxebizitzaren indizearen bilakaera EAEn*
Gráfico 6.1. Evolución del índice de vivienda en alquiler en la CAPV




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

### *Alokatzeko etxebizitza gutxi eskaini da euskal higiezinen merkatuan*

*EAEn alokairuak izandako indize baxuaren eragileetako bat da, besteak beste, higiezinen merkatuan alokatzeko etxebizitza gutxi eskaini izana da. Eusko Jaurlaritzaren Eskaintza Inmobiliarioa txostenean bildutako datuen arabera, 2002an 980 etxebizitza eskaini ziren, batez beste, hiruhileko bakoitzean , (552 babestuak eta 428 alokairu librean); horrek islatzen duenez, %37 gutxiago eskaini da 1997tik, hain zuzen, alokatzeko etxebizitza gehien eskaini ziren urtea.*

### Escasa oferta de vivienda en alquiler en el mercado inmobiliario vasco

El bajo índice de alquiler de la CAPV es consecuencia entre otros factores de la escasa oferta de vivienda en alquiler existente en el mercado inmobiliario. Atendiendo a los datos extraídos del informe de Oferta Inmobiliaria del Gobierno Vasco, a lo largo de 2002 se ofertaron 980 viviendas trimestralmente por término medio[9], (552 protegidas y 428 de alquiler libre) lo que ha supuesto un descenso del 37% desde 1997, año en el que se registró el mayor número de viviendas bajo este régimen en la CAPV.

---

[9] *Gogoan izan, orain azaldutako eskaintza Higiezinen Ajenteek eskainitako etxebizitza babestuari buruzkoa dela; ez dira kontuan hartu partikularrek kudeatutako alokatzeko etxebizitzak.*

[9] Recordar que esta oferta es la que ha tenido lugar a través de Agentes Inmobiliarios y la Vivienda Protegida, no recogidas aquellas viviendas de alquiler gestionadas entre particulares.

*6.2. Grafikoa Alokatzeko etxebizitzaren eskaintzaren bilakaera. EAE*
Gráfico 6.2. Evolución de la oferta de vivienda en alquiler. CAPV




*Iturria: Eskaintza Inmobiliarioaren Estatistika. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.*
Fuente: Estadística de oferta Inmobiliaria. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

***Alokatzeko eskaintza babestuaren gorakada handia eta eskaintza librearen beherakada nabarmendu dira azken urteetan***

*Horrenbestez, alokatzeko etxebizitzaren eskaintzak beherakada handia izan badu, merkatu libreko alokatzeko etxebizitzen eskaintzak ere behera egin duelako gertatu da nagusiki, izan ere, alokatzeko etxebizitza babestuaren kasuan gorakada handia ezagutu da azken urteetan. Horrela, etxebizitza babestuak alokatzeko eskainitako etxebizitza guztien gainean duen pisua edo eragina areagotu egin da, eta 1997an alokatzeko eskaintzaren %17 bazen, 2002an %56 izatera iritsi da.*

*Etxebizitza babestuaren eskaintzari dagokionez, alokairuak pisu handiagoa lortu du eta, zentzu horretan, 2002. urtean eskainitako etxebizitza babestuaren %16 alokatzeko izan da, 1996-2002 aldiko batez bestekoa (%10) gaindituz. Horrela, argi islatzen da Etxebizitzaren Politikaren bitartez alokairua sustatu nahi dela eta sustatzen ari dela, izan ere, etxebizitza-beharra duten biztanleria-talde askori erantzuteko edukitza-erregimen egokia dela uste da.*

***Euskal familiek alokairuagatik ordaindu beharreko errenta altuak***

*Alokairuan bizi diren euskal familiek gero eta errenta altuagoak ordaintzen dituzte; horrek argi uzten du errenta zaharrak gero eta gutxiago direla, bai eta hilean 600 euro baino gehiago ordaintzen duten familiak gero eta gehiago direla ere. Hain zuzen, 2002an alokairuan bizi ziren euskal familiek ordaindu beharreko batez besteko*

**Fuerte incremento de la oferta protegida en alquiler frente al descenso de la oferta libre en los últimos años**

Ahora bien, esta reducción de la oferta de vivienda de alquiler se debe a la fuerte caída de la vivienda de alquiler del mercado libre, ya que la vivienda protegida en este régimen se ha incrementado sustancialmente los últimos años. De este modo, el peso de la vivienda protegida sobre el total de vivienda de alquiler ofertada se ha visto ampliado, pasando de representar el 17% de la oferta de alquiler en 1997, a suponer el 56% en 2002.

Entre la oferta de vivienda protegida, el alquiler ha incrementado sustancialmente su peso, en este sentido a lo largo de 2002, el 16% de la oferta de vivienda protegida ofertada durante este año fue en régimen de alquiler, superando el promedio del periodo 1996-2002 (10%), lo que indica el cada vez mayor impulso que desde la Política de Vivienda se está dando al fomento del alquiler, como régimen de tenencia adecuado para cubrir importantes segmentos de población con necesidad de vivienda.

**Alto nivel de rentas de alquiler pagadas por los hogares vascos**

Los hogares vascos que residen de alquiler deben hacer frente a unas rentas cada vez más elevadas, lo que evidencia la importante desaparición de las rentas antiguas y el aumento de los hogares que declaran pagar más de 600 euros mensuales. Concretamente, en el 2002, las familias vascas de alquiler afirman pagar una renta media de

*6.3. Grafikoa Alokairu babestuko etxebizitzaren eskaintzaren bilakaera EAEn*
Gráfico 6.3. Evolución de la oferta de vivienda en alquiler protegido en la CAPV




*Iturria: Eskaintza Inmobiliarioaren Estatistika. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.*
Fuente: Estadística de oferta Inmobiliaria. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

*errenta 314,5 euro zen, hots, 1996-2002 aldia bere osotasunean hartuta, %64ko gorakada izan da, aldi berean familien soldatek izandako gorakada bikoiztuz (%32).*

*Horrez gain, alokairuan bizi eta etxebizitza aldatzeko beharra aitortu duten familiak ere kontuan hartu behar dira. Batez beste 400 euroko errenta ordaindu behar izaten dute hilean, beharrik ez duten familiek 275 ordaintzen dituzten bitartean. Errenta altu horrek eragiten du, askotan, etxebizitza aldatzeko beharra, soldataren %30,5 errenta ordaintzeko erabili behar baitute; kopuru hori orain bi urte etxebizitza erosi dutenek ordaindu beharrekoaren antzekoa da (%30).*

***Alokairuaren errenten arteko desberdintasunak, etxebizitzaren antzinatasunaren eta kontratazio-urtearen arabera***

*Bestalde, errentak aldatu egiten dira etxebizitzaren ezaugarri jakin batzuen arabera, hala nola, etxebizitzaren antzinatasuna eta alokairua kontratatu den urtea.*

*Zentzu horretan, 2002an alokairuagatik ordaindu beharreko batez besteko erretan 314,5 eurokoa izan zen, baina 60 urtetik gorako etxebizitzena, berriz, 228,6 eurokoa izan zen eta, azkenik, duela urtebete edo gutxiago alokairuaren kontratua sinatu duten familiek 476 euro ordaindu behar zituzten. Azken datu hori 2002an Higiezinen Agenteek kudeatutako Etxebizitzaren Eskaintzan barne hartutako etxebizitza librearen alokairuan baino baxuagoak dira.*

314,5 euros mensuales, lo que ha supuesto un incremento del 64% en el periodo 1996-2002, el doble del aumento experimentado por los salarios de estos hogares en el mismo periodo (32%).

Además destacar el caso de los hogares de alquiler que declaran tener necesidad de cambio, quienes afirman hacer frente a una renta media de 400 euros, frente a los 275 euros mensuales de las familias sin necesidad. Esta elevada renta de los primeros puede ser la principal explicación de la necesidad sentida, ya que supone un esfuerzo financiero del 30,5% de su salario, similar a los hogares que han comprado vivienda en los últimos dos años (30%).

**Disparidades en las rentas de alquiler en función de la antigüedad de la vivienda y año de contratación**

Adicionalmente, se siguen detectando importantes diferencias entre las rentas en función de algunos aspectos relacionados con la vivienda ocupada, tales como la antigüedad de la vivienda y el año de contratación del alquiler.

En este sentido, si la renta media de alquiler en 2002 fue de 314,5 euros por hogar, las rentas de las viviendas de más de 60 años presentan un promedio bastante inferior, 228,6 euros y las de aquellas familias que han firmado el contrato de alquiler hace un año o menos deben hacer frente a una renta de 476 euros, dato este último todavía inferior al registrado en los actuales alquileres de vivienda libre recogidos en la Oferta de Vivienda gestionada por los Agentes inmobiliarios a lo largo del 2002.

*6.4. Grafikoa Alokairuaren batez besteko errenta: alokairuan bizi diren familiak eta alokatzeko eskainitako etxebizitza*
Gráfico 6.4. Renta media de alquiler: hogares en alquiler y vivienda en alquiler ofertada




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III) eta Eskaintza Inmobiliarioa.*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002) y Oferta Inmobiliaria.

## *Gero eta pertsona gehiagok agertzen du alokairuagatiko interesa eta gero eta gutxiagok baztertzen du*

*Gero eta gutxiago dira alokairua edukitza-erregimen bezala baztertzen dutenak, bai etxebizitza aldatzeko beharra duten familien kasuan bai lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen artean. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien %36k eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen %56k onartu du alokairua etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimen bezala.*

## Tendencia al alza de las personas interesadas en el alquiler y descenso del núcleo duro de rechazo de este régimen

Cada vez es menor el volumen de población que rechaza el alquiler como posible régimen de tenencia tanto entre los hogares con necesidad de cambiar de vivienda, como entre las personas jóvenes que desean acceder a su primera vivienda. El 36% de los hogares con necesidad de cambio y el 56% de las personas con necesidad de acceso aceptarían el alquiler como régimen de tenencia de la futura vivienda.

*6.5. Grafikoa Etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimen bezala alokairua erabat baztertzen duen taldearen bilakaera*
Gráfico 6.5. Evolución del núcleo duro de rechazo del alquiler como régimen de tenencia de la futura vivienda




*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).





*Lehen jabetza bakarrik aukeratzen zutenak gutxiago dira eta orain jabetza eta alokairua, biak, onartuko lituzkete etxebizitzaren beharrari erantzuteko. Alokairua lehen aukera bezala egin dutenak ere gehiago izan dira edo baldintza jakin batzuen eta errenta egoki baten arabera onartuko zuketenak.*

Este descenso se debe principalmente al trasvase de personas que antes se decantaban por la propiedad y ahora se plantean ambos regímenes de tenencia como alternativas a su necesidad de vivienda. También se han producido ligeros incrementos en el colectivo de los que escogen como primera opción el alquiler o lo aceptan bajo condicionantes como las rentas más asequibles.

*Hala, alokairua erabat baztertzen duen taldea gutxitu egin da; etxebizitza aldatzeko beharra duten familien %63 eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen %43,5 dira alokairua erabat baztertu dutenak.*

De este modo, el núcleo duro de rechazo del alquiler desciende, representando el 63% de los hogares con necesidad de cambio y al 43,5% entre las personas jóvenes con necesidad de acceso los que en ningún caso se plantearían el alquiler.

***Etxebizitza eskuratzeko lehentasun bezala alokairua sustatzea***

**El fomento del alquiler como eje prioritario para el acceso a la vivienda**

*Herri Administrazio, Estatu, Autonomia Erkidego eta Udalerriek partekatzen duten helburua da alokatzeko etxebizitzen parkea ugaritzea. Ildo horretan, EAEko Etxebizitza Plan Zuzendariak alokatzeko etxebizitza babestu gehiago eskaintzea erabaki du, bai eta etxebizitza hutsak alokatzeko jartzea ere, eta, xede horrekin, etxebizitzen sustatzaile eta jabeengana zuzendutako laguntzak emango dira, hala nola, mailegu kualifikatuak, interesen ordainketa eta fondo galdura emandako diru-laguntzak.*

La ampliación del parque de viviendas en alquiler es uno de los objetivos comunes de las diferentes Administraciones Públicas, Estado, Comunidades Autónomas y Municipios. En este sentido el Plan Director de Vivienda de la CAPV se plantea el incremento sustancial de la vivienda protegida en alquiler y el fomento del alquiler de la vivienda vacía, todo ello a través de ayudas a promotores y propietarios de las viviendas, en forma de préstamos cualificados, subsidiación de intereses y subvenciones a fondo perdido.

# A ERANSKINA: METODOLOGIA
# ANEXO A: METODOLOGÍA



*2002 Oinarrizko Inkesta egiteko erabilitako metodologiak, aurrekoetan (1996-97-98-99-2000-2001-2002) erabilitako elementu guztiak mantentzen ditu: bai laginaren tamaina eta banaketa, bai erabilitako inkesta-metodoa, galdera-sorta eta zenbatespen-irizpideak, aldaketa eta hobekuntza txiki batzuk salbu, orduko berberak dira.*

## *A.1. Laginaren ezaugarriak eta inkesta-metodoa*

***a) Unibertsoa***

– *Etxebizitza-beharren eta -eskariaren analisian, azterketaren xede den populazioa EAEn bizi diren 18 urtetik gorako pertsona guztiek osatzen dute. Hala ere, etxebizitza eskuratzeko behar indibidualen kasuan, gurasoen etxean bizi diren 18 urtetik gorakoek osatzen duten kolektiboak (beren bizitzaren uneagatik beragatik guztiek etxebizitza-beharra adieraz dezaketela kontuan izanik) duen etxebizitza-beharrari buruzko informazio zehatzagoa lortzearren, unibertsoa diru-sarreraren bat duten pertsonetara murriztu da. Halaber, gehieneko adina 44 urtera mugatu da.*

***b) Laginaren tamaina***

– *Unibertso honetatik abiatuta, EAE osoko 3.199 etxeko lagin bat atera da. Lagin honek, emaitzen analisia ±%1,8ko errore-marjinarekin egitea ahalbidetzen du (konfiantza-maila %95,5ekoa izanik). Lurralde historikoen arabera ondoko gorabeherak agertzen dira: ±%2,6koa Bizkaian, ±% 3,0koa Gipuzkoan eta ±%,4,0koa Araban.*

***c) Laginaren banaketa***

– *Lagina aukeratzeko orduan garrantzi handia eman zaio esparru geografiko bakoitzari buruzko datuak barne hartzeko beharrari; honakoak dira esparru geografikoak:*

- Eskualde-egiturak: *eskualde-egituretan etxebizitzarekin lotuta dagoen beharra ezagutzeko, eskualde-egitura bakoitzean gutxienez 100 inkesta egin behar izan dira; hortaz, laginaren errorea ±%10 da eta konfiantza-maila, berriz, % 95,5%.*
- *Inkestan barne hartuko zen* udalerri-kopurua *udalerriaren tamainaren araberako sailkapenarekiko proportzionala izan da. Azkenik erabiliko ziren udalerriak ausaz aukeratu dira multzo bakoitzaren baitan.*
- 40.000 biztanletik gorako hiriburuak eta udalerriak: *etxebizitzaren beharrak eta eskaria ezagutzeko hiriburuek eta udalerri*

La metodología empleada para la realización de la Encuesta de Necesidades y Demanda de Vivienda 2002 mantiene completamente los elementos utilizados en las anteriores (1996-97-98-99-00-01-02): tanto el tamaño y distribución de la muestra, como el método de encuestación, el cuestionario y los criterios de estimación empleados son los mismos que entonces, con pequeñas variaciones y mejoras.

## A.1. Características de la muestra y método de encuestación

**a) Universo**

– El análisis de las necesidades y demanda de vivienda tiene como población objeto de estudio al conjunto de personas mayores de 18 años residentes en la CAPV. Sin embargo, en el caso de las necesidades individuales de acceso, con objeto de conseguir una información más ajustada acerca de la necesidad de vivienda en un colectivo en el que, por el propio momento vital en que se encuentra (mayores de 18 años residentes en el hogar paterno), todos sus componentes serían susceptibles de expresar necesidad, el universo ha quedado restringido a individuos que disponen de algún tipo de ingreso, limitando la edad máxima a los 44 años.

**b) Tamaño muestral**

– Partiendo de este universo, se ha extraído una muestra de 3.199 hogares para el conjunto de la CAPV, que permite un análisis de los resultados con un margen de error de ±1,8% (con un nivel de confianza de 95,5%), oscilando según territorios históricos entre el ±2,6% de Bizkaia, ±3,0% de Gipuzkoa y el ±4,0% de Álava.

**c) Distribución de la muestra**

– La selección de la muestra se ha realizado buscando la representatividad de los datos en cada uno de los siguientes ámbitos geográficos:

- *Áreas funcionales:* la cuantificación de las necesidades de vivienda a nivel de área funcional, ha exigido la realización de un mínimo de 100 encuestas en cada una de ellas, lo que supone un error muestral ±10%, siendo el nivel de confianza del 95,5%.
- La fijación del número de *municipios* a encuestar se ha realizado de forma proporcional a la clasificación de los mismos en base a su tamaño. La selección última de los municipios se ha efectuado de forma aleatoria dentro de cada estrato.
- *Capitales y municipios mayores de 40.000 habitantes:* la relevancia de las capitales y grandes municipios en la configuración





*handiek garrantzi handia dutela eta, lagin osagarriak ere sartu dira laginketaren baitan, ahalik eta azterketa zehatzena egin ahal izateko. Horrela, hiru euskal hiriburuetan, bakoitzean, 333 inkesta egin dira (E=±%5,5) eta EAEko udalerri handienen artetik zazpitan 100 egin dira (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Irun eta Errenteria)[10].*

de las necesidades y demanda de vivienda, ha aconsejado la inclusión de muestras complementarias que otorgarán una mejor representatividad a estos ámbitos. De esta manera, cada una de las tres capitales vascas cuenta con unas 333 encuestas (E=±5,5%) y con 100 cada uno de los siete municipios mayores de la CAPV (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Irún y Rentería)[10].

*A.1. Koadroa LAGINAREN BANAKETA ESKUALDE-EGITUREN ARABERA*
Cuadro A.1. DISTRIBUCIÓN DE LA MUESTRA POR ÁREAS FUNCIONALES

| *ESKUALDE-EGITURA*<br>ÁREA FUNCIONAL | *INKESTA KOPURUA*<br>N.º ENCUESTAS | *LAGINAREN ERROREA*<br>ERROR MUESTRA (±%) |
|---|---|---|
| *1 Balmaseda-Zalla* | 100 | 10 |
| *2 Beasain-Zumarraga* | 100 | 10 |
| ***3 BILBAO*** | **933** | **3,3** |
| ***4 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN*** | **633** | **4,0** |
| *5 Durango* | 100 | 10,0 |
| *6 Eibar* | 100 | 10,0 |
| *7 Gernika-Markina* | 100 | 10,0 |
| *8 Igorre* | 100 | 10,0 |
| *9 Laguardia* | 100 | 10,0 |
| *10 Llodio* | 100 | 10,0 |
| *11 Mondragón-Bergara* | 100 | 10,0 |
| *12 Mungia* | 100 | 10,0 |
| *13 Tolosa* | 100 | 10,0 |
| ***14 - VITORIA-GASTEIZ*** | **433** | **2,3** |
| *15 Zarautz-Azpeitia* | 100 | 10,0 |
| ***GUZTIRA EAE* / TOTAL CAPV** | **3.199** | **1,8** |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*A.2. Koadroa LAGINAREN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA*
Cuadro A.2. DISTRIBUCIÓN DE LA MUESTRA POR TERRITORIOS

| | *INKESTA-KOPURUA*<br>N.º ENCUESTAS | *LAGINAREN ERROREA*<br>ERROR MUESTRA (±%) |
|---|---|---|
| *ARABA* / ÁLAVA | 633 | 3,9 |
| *BIZKAIA* | 1.433 | 2,6 |
| *GIPUZKOA* | 1.133 | 3,0 |

*Iturria: EAEko Etxebizitzen Behar eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2002-III).*
Fuente: Encuesta Base sobre Necesidades y Demanda de Vivienda en la CAPV (III-2002).

*[10] "Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika 1996" lanean Errenteriako udalerriak 40.000 baino biztanle gutxiago bazituen ere (zuzenbideko biztanleria = 39.663), azterlan honi dagokionez beste udalerriekiko aldea oso txikia denez, "udalerri handien" taldean sailkatuta dago.*

[10] Aunque en la "Estadística de Población y Vivienda 1996", la población del municipio de Rentería resulta ligeramente inferior a 40.000 habitantes (población de derecho = 39.663), el estrecho margen de diferencia hace que a efectos de este estudio se siga considerando como parte del grupo de "grandes municipios".



***d) Emaitzen haztapena***

– *Ondoren, EAE osoko datuak eskualde-egituren populazio-pisuan oinarrituta aztertu dira. Halaber, hiriburua eta udalerri handiak barne hartzen dituzten eskualde-egituretan koefiziente zuzentzaileak barne hartu dira batzuek eta besteek duten pisua ezartzeko.*

***e) Inkesta-metodoa***

– *Inkesta-metodoari dagokionez, galdera itxietan oinarrituta egituratutako galdera-sorta bat erabili da. Galdera hauek betetzeko bi metodo osagarri erabili dira: telefono bidezko elkarrizketak eta etxean bertan egindako elkarrizketa pertsonalak.*

– *Familia guztiekin izandako lehenengo harremanak telefonoz egin dira. Lehenengo elkarrizketan familiaren ezaugarriak zehazten ziren eta etxebizitzarekin erlazioan izan zitezkeen behar guztiak antzematen ziren, bai familia-unitatearen beharrak bai lehenengo etxebizitza eskuratu nahi duten pertsonen beharrak.*

– *Familia-unitateak etxebizitzaren beharrik adierazten ez bazuen edo etxebizitza birgaitzeko beharra bazuen, eta etxebizitza eskuratzeko banakako beharrik antzematen ez bazen, inkesta telefonoz egiten zen, osorik.*

– *Etxebizitza aldatzeko beharra edo eskuratzeko beharra antzemanez gero, telefono bidezko elkarrizketa elkarrizketa pertsonalarekin osatzen zen, etxean bertan egiten zena, eta elkarrizketa pertsonalaren bitartez zehazten zen familiaren edo banakakoaren behar-mota.*

## *A.2. Behar- eta eskari-indizeen zenbatespena*

### *A.2.1 Behar-indizeen zenbatespena*

***a) Behar-mota***

– *Azterketaren helburuen arabera, familiarekin, unitate bat eta banakako beharrak bezala ulertuta, lotutako hainbat behar zehaztu dira:*

- Familiak berak dituen beharrak:
  - *Etxebizitza aldatzeko beharra.*
  - *Bizi den etxebizitza birgaitzeko beharra.*
  - *Etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrik ez duten familiak.*

**d) Ponderación de resultados**

– Posteriormente, los datos para el conjunto de la CAPV han sido ponderados en base al peso poblacional de las diferentes áreas funcionales. Asimismo, en aquellas áreas que incluyen también la capital y grandes municipios, se han incluido coeficientes correctores que restablecen el peso de unos y otros a nivel interno.

**e) Método de encuestación**

– En relación al método de encuestación, se ha utilizado un cuestionario estructurado en base a preguntas cerradas, que se han cumplimentado por dos métodos complementarios: entrevistas telefónicas y entrevistas personales en el propio domicilio.

– Todos los hogares han sido contactados inicialmente vía teléfono. En esta primera entrevista se realizaba la caracterización del hogar y se detectaban posibles necesidades relacionadas con la vivienda, tanto de la unidad familiar en su conjunto como de personas que quisiera acceder a su primera vivienda.

– Si la unidad familiar no presentaba necesidad de vivienda, o esa necesidad era de rehabilitación, y tampoco existían necesidades individuales de acceso, la encuesta se terminaba de cumplimentar vía telefónica.

– En caso de que se detectara, bien necesidad de cambio, bien necesidad de acceso, la entrevista telefónica daba paso a otra entrevista personal realizada en el propio domicilio, en la que se profundizaba y se caracterizaba el tipo de necesidad declarado por esa unidad familiar o individuo.

## A.2. Estimación de índices de necesidad y demanda y elevación de resultados

### A.2.1. Estimación de índices de necesidad

**a) Tipo de necesidad**

– De acuerdo a los objetivos del estudio se han determinado necesidades relativas al hogar considerado como una unidad y necesidades individuales:

- Las *necesidades del propio hogar* se concretan en:
  - Necesidades de cambiar de vivienda.
  - Necesidades de rehabilitar la vivienda ocupada.
  - Hogares sin ninguna necesidad de cambiar o rehabilitar.

- Banakako beharrak, *familiaren baitan*, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrak dira. *Hau da, familiaren etxebizitzan bizi eta 18 urte baino gehiago dituzten gizabanakoek etxebizitza eskuratzeko duten beharra (normalean seme-alabak izaten dira), beren familia osatu nahi dutelako.*

***b) Premiadun izateko baldintzak (eskuratzea eta birgaitzea)***

– *Etxebizitza eskuratzeko beharren kasuan, beharra dutenek sarrera propioak edukitzeko baldintza eta 18-44 urte bitartean edukitzeko baldintza ezarri dira.*

– *Birgaitzeko beharren kasuan berriz, aurreikusitako birgaitzeak 3.000 eurotik gorako aurrekontua izateko baldintza ezarri da etxebizitzaren berezko elementuei soilik dagokienean (baldintza hau ez da elementu komunen birgaitzeetan aplikatu).*

***c) Etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko eta eskuratzeko beharraren indizeak***

– *Behar-indizeak, mota bakoitzeko etxebizitza-beharra dutenen portzentaje gisa kalkulatu dira (inkestatutako etxe guztiekiko).*

– *Erkidego-mailan ez bezala, maila txikiagoko esparru geografikoetarako (Lurralde Historikoak, Eskualde Egiturak, hiriburuak, udalerri nagusiak) indizeak kasu bakoitzean zuzenean lortutako indizearen eta dagokion esparru osoko (EAE Lurralde Historikoen eta Eskualde Egituren kasuan; hiru hiriburuen guztizkoa, hala badagokio; udalerri handien guztizkoa, hala badagokio) beharraren batez besteko indizearen arteko batez besteko gisa kalkulatu dira.*

***d) Eskariaren zenbatespena 4 urte, 2 urte eta urtebeteren buruan***

– *Esparru bakoitzeko behar-indizeetatik abiatuta, eskaria zehazteko EAEko maila-adierazleak aplikatu dira, beharra duten pertsonek beharrari erantzuteko kalkulatutako aukerak kontuan hartuta:*

- *Eskaria 4 urtera: epe horretan bere beharrari erantzuteko aukera handia dutela adierazi duten pertsonak edo familiak behar-mota bakoitzaren % (aldatzea, birgaikuntza eta eskuratzea).*
- *Eskaria 2 urtera: epe horretan bere beharrari erantzuteko aukera handia dutela adierazi duten pertsonak edo familiak behar-mota bakoitzaren % (aldatzea, birgaitzea eta eskuratzea).*

- *Las necesidades individuales se definen como necesidades de acceso a una nueva vivienda* existentes en esos mismos hogares. Es decir, necesidades correspondientes a miembros residentes en el hogar (mayoritariamente hijos), mayores de 18 años que quieran independizarse de la unidad familiar y constituir su propio hogar.

***b) Requisitos para ser considerados hogares necesitados (acceso y rehabilitación)***

– En el caso de las necesidades de acceso, se ha establecido el requisito de que los interesados cuenten con ingresos propios para dar carta de naturaleza a las mismas y tengan entre 18 y 44 años.

– En el caso de las necesidades de rehabilitación, se ha establecido el requisito de que la rehabilitación prevista tenga un presupuesto superior a los 3.000 euros cuando se refiera únicamente a elementos propios de la vivienda (el requisito no se aplica a la rehabilitación referidas a elementos comunes).

***c) Índices de necesidad de cambio, rehabilitación y acceso***

– Los índices de necesidad se han calculado como el tanto por ciento de hogares necesitados de vivienda de cada tipo en relación al total de hogares encuestados.

– Excepto a nivel de Comunidad Autónoma, los índices presentados para los ámbitos geográficos inferiores (Territorios Históricos, Áreas Funcionales, capitales, principales municipios) se han calculado como medias del índice directamente obtenido en cada caso y el índice medio de necesidad en el conjunto del ámbito de que se trate (CAPV para los Territorios y Áreas Funcionales; total de las tres capitales en su caso; total de grandes municipios en su caso).

***d) Estimación de la demanda a 4 años, 2 años y 1 año***

– A partir de los índices de necesidad de cada ámbito espacial, la demanda se ha obtenido aplicando los indicadores de nivel CAPV respecto a la probabilidad de satisfacer la necesidad en un determinado plazo según la apreciación de los afectados:

- Demanda a 4 años: % de hogares necesitados de cada tipo (cambio, rehabilitación y acceso) que han contestado muy o bastante probable satisfacer su necesidad en ese plazo de tiempo.
- Demanda a 2 años: % de hogares necesitados de cada tipo (cambio, rehabilitación y acceso) que han contestado muy o bastante probable satisfacer su necesidad en ese plazo de tiempo.



- *Eskaria urte batera: datozen bi urteetan bere beharrari erantzuteko aukera handia dutela eta jada etorkizuneko etxebizitzaren bila ari diren edo birgaikuntza egiteko aurrekontua eskatu dutela adierazi duten pertsonak edo familiak behar-mota bakoitzaren % (aldatzea, birgaitzea eta eskuratzea).*

### *A.2.2. Emaitzak zehaztea: beharraren eta eskariaren kuantifikazioa*

– *Beharraren eta eskariaren kopuru absolutuak kuantifikatzeko etxebizitza nagusien kopuruei dagozkien indizeak aplikatu dira, kontuan hartutako esparru geografikoaren arabera eta 1996 Biztanleria Erroldako Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikaren arabera.*

– *Etxebizitza eskuratzeko beharren kasuan, beharraren eta eskariaren kopuruak zehazteko zuzenean aplikatu da familia bakoitzari dagokion indizea; hala ere, hainbat aldaketa egin dira jarraian aipatutako ezaugarrien arabera:*

- Familia bakoitzean batez beste etxebizitza eskuratzeko beharra duen kide-kopurua, *kontuan hartu behar baita zenbait familietan kide batek baino gehiagok izan ohi duela beharra.*

- Beharraren arrazoia. *Ezkontza dela eta edo bikotearekin bizitzera joateagatik etxebizitza eskuratzeko beharra dagoenean kasuen erdia bakarrik hartu da kontuan, eskuratutako etxebizitzetan bi pertsona biziko baitira. Horrez gain, beharra duten bikoteen sarrerak ere kontuan hartu dira.*

- Demanda a 1 año: definida como % de hogares necesitados de cada tipo (cambio, rehabilitación y acceso) que han contestado muy o bastante probable satisfacer su necesidad en los próximos dos años y además están buscando ya la futura vivienda o han pedido presupuestos de obra en el caso de rehabilitación.

### A.2.2. Elevación de los resultados: cuantificación de las necesidades y la demanda

– La elevación de los resultados, es decir, la cuantificación de las cifras absolutas de necesidad y demanda se ha realizado aplicando los correspondientes índices a las cifras de viviendas principales (entendidas como hogares) existentes en cada ámbito geográfico considerado, de acuerdo con los resultados definitivos de la Estadística de Población y Vivienda del Padrón de Habitantes de 1996.

– En el caso de las necesidades de acceso, las cifras de necesidades y de demanda resultantes de la aplicación directa del índice por hogar se han corregido teniendo en cuenta:

- *El número medio de casos de necesidad de acceso por hogar,* ya que hay que tener en cuenta que hay hogares en los que hay más de una persona con necesidad.

- *El motivo de la necesidad.* Concretamente cuando se trata de accesos debidos a matrimonio o convivencia en pareja se ha procedido a contabilizar únicamente la mitad de estos casos, ya que las viviendas van a ser compartidas por dos hogares necesitados. Adicionalmente, se han tenido en cuenta las proporciones de disposición o no de ingresos propios por las parejas de los hogares necesitados.